A
Z

ATV
1803

INSTITUCION SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria

M-9933
R-4364

# ONDO ILTZEN
# ICASTECO,
ETA
# ONDO ILTZEN LAGUNTZECO
## EJERCICIOAC.

ONDO ILL NAI DUTENAI,
ETA ONDO ILTZEN LAGUNDU NAI DUTEN JAINCOAREN MINISTROAI, JESUSEN COMPAÑIACO
**AITA AGUSTIN CARDABERAZEC**
ESQUEINTZEN DIZTENAC.



**TOLOSAN:**
**Mendizabalen alargunaren Moldizteguian.**
**1851** *garren urtean.*

# SARRERA.

Liburucho onetan, ondo ill naidezun Cristava, Eleizaren Dotriñan, ta Santuen egemploetan icasico dezu zure azqueneco bearren dezun Ceruco lecioa. Ilcorrac, edo jayo ta ill bear duenac emen Ispillu arguian becela, bere burua contuz, ondo icusi beardu. Cerua goyan, ta infernua bean zure beguira daude: eta zu bien bitartean. Zure azqueneco asnaseac, erremedio gabe, sentencia aguertuco du: edo betico Cerua, edo betico infernua.

## LECIO ONEN INDULGENCIAC.

Onetara zu animatzeco jaquizu, Liburu onetaco edoccin orri edo gauza iracurteagatic, bacoitzean, da bacoitzari Toledoco Cardenal Jaunac eun eguneco Indulgenciac eman diozcala. Beste eun eguneco barcacioac Dotriñaco orri edo hoja bat, edo bacoitza iracurteagatic: orobat beste nere Liburuchoetan, edo Novena.

ta Devocioac eguiteagatic: eta are gueyago Jesusen bost Llaga sagraduen Devocio laburra, eta erraz buruan artuco dezuna, eguiteagatic: ta au naiz Eusqueraz, naiz Erderaz, Lezoco Santo Cristoaren Devocioan dagoen becela: eta Indulgencia oyec guciac Euzcaldun guciac edoceiñ lecu, ta demboretan dituzte, ta betico. Orra costu guchian irabaci andia.

## AVISO BI.

Jaincoaren Ministroac badaquite, Eleizac Manual sagraduan erientzat favore aundi bi dacartziela. Bata da, Fedeco Actuac, eta Sacramentuen confesioa: eta Ministroari Eleizac esaten dio, eri bacoitzari bere izqueran oriec eraguiteco. Ala Viaticoa eman baño len, conveni da actu oriec guztiai eraguitea. Orretaraco diran guciac Euzqueraz Liburu onetan eman ditut; ceren Eleizaren gauzac, ta devocio, eta irabaci andico actuac diraden.

Bigarren favorea da, Deabruen contraco conjuroac, eta armac, edo Evangelio santuac eriai errezatzea. Au emen falta zan: oraiñ Eleiza Ama Santac naiduen becela, Evangelioac beren oracioaquin, Liburu onen azquenear ematen ditut.

## BIGARREN AVISOA.

Bizcayan, Nafarroan, eta emen Liburu onen lecioan gauza miragarriac Jaincoac beti eguin ditu, Abade Jaun celosoac testigu onac dira. Oyec diote baserri gende on ascoc, Jai egunetan bacarric iracurten asi, ta icasi, ta Liburu onequin iltzen laguntzeari eman diotela. Ainguerúen oficioa artu dute, ta animentzat bearren dana. Egun oyetan emen Loyolaco auzoan celo andico Abade batec iltzeco cegoen bati, ta echecoai esan dic: » Ea banoa, ta con» tu, eriac ecer nai badu, avisa nazazute, eta » etorrico naiz. Ez, Jauna: urlia auzoan de» gu, ta Ondo iltzeco Liburutic, chit ederqui » laguntzen dio. ¿ Eta urlia ori nor da? Baserrico Nescacha Jayetan lecioa artu, ta beste gabe, erraz, laster, ta ondo iracurten icasi duen bat. Dembora guchian gende asco onetara, ta chit ederqui eguindira.

Ala Abade Jaun animen zale diranac, ta ondo iltzen ascori laguntzen dienac, deadarrez diote: » Cura ta beste Ministroac ondo iltzen, bear » becela, ez laguntzeco, aitzaquiaric ezdute; » Bada Liburu onetan, bear dan guztia edoceñec » arquitzen du; gogoa duenac escusaric eztu." Maisu jaquinsu, ta chit famatu batec nere Liburu au contuz icusi, ta atseguin andiaz esan zuen.

» Liburu onequin animen salvacioco frutu andia » Euscaldunetan ateraco da: eta Cura Jaunen » carga consuelo andiaz asco alibiatuco da."
Ala ecusten da.

Orregatic deabruac bere guezurraquin asco engañatzen ditu, bai ta obligacio gueyena dutenac ere: eta oyec beren erausiaquin, uste duten baño calte gueyago animetan eguiten dute. Batac dio Eusquerazco Dotriña edo Liburuac ecin iracurri edo aditu dituela: besteac Eusquera Algarabia, Greguería, Guirigai, edo naspilla madaricatua dala. ¡Ah dontsu choroac, ta deabru charrac ondo erraz itsutuac! Oriec guezurrac, ametsac, edo aitzaquiac dira. Eusquera bedeincatua, edo Jaincoaren bendicioz, ta erregaliaz betea da. Eusquera berez chit nasgabe, edo garbia, arguia, ta bicia da. ¡O Euscaldunac ala balira! Cembat ere diran beste izquera, edo lengoageac, bati ere ecer zor eztio. Eusquera guciac becin ederra, eta beste asco baño ederragoa da: errazago icasten, itz eguiten, ta iracurten da.

Aurrac, ta besteac gogotic asi, ta aire galantean icasten dute. Juicioa duenac, ta Jaincoarequico egiia esan naiduenac, besteric ecin esangodu. Chiquitan zuc, eta gucioc icasi guenduen Dotriña berbera Cartillan iracurten da. Bestec iracurri, edo predicatuta zuc guztia aditzen dezu. Lotsagarrizco gauza da zuc ez ira-

enrtea; gogoa bacendu, iracurten erraz da. Aimbeste demboran, urte ascotaco Misioetan Bizcayan, Nafarroan, Aravan ta emen guc predicatu deguna berbera Liburuetan ematen da: au eguia claroa da. Baña asco beren naguitasunaz itsuac daude: orrela vici eta iltzen dira; eta juicio gabe, guezur orretan eguiaren munduan, edo Jaunaren juicioan arquitzen dira. ¡Jaincoac itsu oyec argui ditzala: eta beste Cristau, Ministro, eta Maisu juiciozcoac becela, anima ascoren salvacioraco conseju obeac artu, eta emateco diela bere gracia Amen.

# ONDO ILTZEN

# ICASTECO,

TA ONDO ILTZEN

# LAGUNTZECO

## EJERCICIOAC.

### IRACURLE EUSCALDUNARI PAQUEA,

*eta eriotza ona.*

ZORI onecoa zu izateco, zure izate, eta eguiteco gucia dago, Jaincoaren Fedeco, eta Leguеco gauzac ondo icasi, eta sinistu, eta orietan eta oriequin ondo bici, eta ondo iltzean. Ezta asco ondo jaquitea, eta ez ondo asitzea. Escritura Sagraduac, eta beste Liburuac diotenez: *asco ondo asi eta gaizqui acabatu, edo asacatu ciran.* Orregatic bada ondo asitzeco, ondo prestatzeco eta ondo iltzeco egercicio au orain eman nai dizut.

## LENENGO §.

*Eguiteco au cer dan.*

Cristavac lurrean vici dan artean, eguiteco andiagoric ez du, paquean Jaincoaren gracian iltzea baño. Zure, eta nere eguitecoric bearrena au da. Jesu-Cristoc Evangelioan dion gauza bacarra, eta bearra au da. Au da Jaunaren misericordia gucien andiena, doai gucien doaya, gracia gucien gracia. Au da Ceruco Atearen guiltza, mesede gucien sillua, meritu gucien saria, eta favore gucien coroa.

Argatic ondo iltzen icastea da Ceruco leccioric egoquiena: Eta ondo illtzen laguntzea da Ainguerúen oficioric onena. ¿Naizu bada, ondo ill, edo ondo iltzen icasi? Jaquizu bada, Jaincoac San Pabloren aotic diona: *bicidan becela gueyenean iltzen dala*. Bicitza nolacoa, eriotza alacoa. ¿Naizu ondo ill? Jaquizu bada, Jaincoac Daviden aotic diona: *pecatari edo injustoa eriotzan gaitzac arrapatzen dutela*: gaitz gucien gaitza eriotza gaiztoa da. ¿Naizu ondo ill? Jaquizu bada, Jaincoac beraren aotic diona: *pecatarien eriotza aren beguietan nazcagarria dala*: ¿Naizu ondo ill, edo ondo iltzen icasi? Jaquizu, bada, Espiritu Santuac diola: *biotz gogorra azqueneco egunean chit gaizqui arquituco dala*.

Orrela ondo iltzen icastea cer da? Da erio-

tza baño len, edo zure bicitzan iltzea. Ondo iltzen icastea da, eriotzan naico dezuna, orain, eta beti eguitea. Ondo iltzen icastea da, demonio, mundu eta araguiarentzat zu berealа iltzea. Ondo iltzea bera da, pecatu gabe, Jaincoaren gracian irautea. Iraute onec lenago gracian egotea, Jaincoaren adisquide izatea, berez escatzendu, edo esan naidu.

Illgaitean, bada, Cristava, zu eta ni gure bicitzan, bici gaitean gure eriotzan. Eriotza beti beguien aurrean dacargu, eriotzan cer eguiñic izango ezdegu. Onela bicitzan illagatic, munduco eroac baño tristeago bicico ezguera; baicic ayec baño aleguereago. Ayen alegria acabatuco da, eta gurea beticoa izango da. Ayen alegria azaletic, eta campoticacoa da; baña gurea mamitic, eta barrendicacoa da. Ayen alegria mundu guezurtian, gurea Jainco eguiazcoan beti dago.

Jesu-Cristo Ceruco Maisuac, Aita amorosoac becela esaten diguna da: *Estote pariti: Vigilate: Estote pariti*. Ez beiñ, Espada bi ta iru aldiz dio: contuan mancaturic, eta prest gaudela, ceren guchien uste degunean, ill beardegun: eta egun, eta ordu seguruгic ez degula. Cristoc ez dio: prestatu, mancatu, edo preparagaiteala, ezpada mancatu, paratu, eta prestaturic beti gaudela. Mandatu au zuc, eta nic bertatic ardezagun. Artzen badegu; puntu di-

choso orretatic zori onecoac izango guerade. Ta eguia esatera descansuzco bici gozoagoric munduan iñorc eztu, beti eriotza gogoan daucanac baño. Orregatic Jesus maiteac aimbeste naidigunac becela, gozoro bici gaitean, conseju ori ematen digu.

Galde bada eguia au ondo icasi, eta icusi, eta cequitenai galde. Galde Jaincoaren beste ciervo fielari, ceñaz iltzeco zorian cegocla, esan zuen: Jaincoari graciac: oguei eta aimbeste urtean, iltzeco becela, egunoro confesatu izan naiz: eta oraiñ atzo becela confesatzea, beste cer eguiñic ezdaucat. Au esan eta sosegu, eta paque gozoan ill zan. ¡O dicha paregabea! ¡O gloria bicia!

Santu, eta Jaincoaren adisquideai galde. ¡O zorionecoa, Teofilo Patriarcac S. Arseniori bere eriotzan esatencion! ¡O zure dichosoa Arsenio, bada zure bician izan ezdezu instanteric eriotza beguien aurrean iduqui ezdezunic! Arsenio au Jaincoaren guizon jaquintsu famatua, S. Damaso Aita Santuac asco estimatu, eta Teodosio Emperadoreari bialdu cion: onen Seme Arcadioren Maisu andi Palacioan izandu zan: guero berroguei eta amabost urtean Monje izan zan: eta beti eriotza memorian ceucala, miragarrizco Santu aundi eguin, eta eun eta oguei urtecoa iltzan.

Galde San Pablori berari, ceñac dion egu-

noro iltzen zala, ta Jesu-Cristorequin egoteagatic, egunoro ta beti ill nai zuela, ta arentzat eriotza irabacia zala; ceren ill eta gloria bicia irabazten zuen. Galde gure auzoetaco, eta munduaren bazter oyetaco Necazaricho garbi beren icerdiaquin jaten ematen diguten ascori. Orien artean asco, ta nerequico chit asco, Jaincoaren misericordiaz salvatzen dira: ala eriotzari, datorrenean, arpegui ona eguiten diote Jaunaren voroundateaz batean soseguz, ta aberats andi asco baño paque obeaz, alacoric ezbalitz becela, edo guela batetic bestera aldatzea becela, oyec iltzen dirade. ¡O zorioneco pobreac!

## VIRGIÑA SANTA GETRUDISEN
### Ejercicioa.

Jesusen Esposa erregalatu onec ondo illtzen icasteco eguiten zuenaz, guc cer eguin bear degun eracusten digu. Bere atzeneco gaitzac artu balu becela, oyean sartzen zan. Barrendic, edo bere espirituan esaten bacioten becela, ill berria aditzen zuen, ta illtzeco presta cedilla. Orduan bere biotzean sartu, animari beguiratu, ta bere conciencia esamiñatzen zuen, Jesu-Cristoren oñetan amoriozco damu, ta negar andiaquin bereala confesatzen zan. Bidezcoac becela Viatico santua, ta azquen Oleacioa bere espi-

rituan, Eleizaren oracioac devocioz esanaz, artzen cituen.

Jaunari ezquer onac, edo graciac eman, eta bere Religiosetatic, eta munduagandic Eternidadeco biajea eguiteco despeditzen zan. Illtzeco zorian bere burua consideratu, Santo Cristo bat escuetan artu, ta bere biotza gozoro artu, ta deseguiñaz, Jaincoari bere favorea ordu artaraco chit estu escatzen cion: Santa Maria Virgiña Amari, San José, ta bere devocioco Santuai pauso artan laguntzeco, deitzen cion, eta ya illtzen cegoela icen guciz gozo, Jesus, ta Maria esanaz Jaunari bere espiritua encomendatzen, eta entregatzen cion.

Santa Getrudis andiac ondo iltzeco beti eguiten zuen Egercicioa onela zan, ta ori bere devocio, ta amorio guciaz eguin arren, ez penaz, edo triste, ezpada consueloz ta Ceruco favorez beteric bici izan zan, ta chit luzaro. Berroguei urtean bere Conventuco Abadesa, ta orietan Aingueru baten guisa monjac gobernatu, eta Aingueruen artean Ama Virgiña, ta Evangelista San Juan berequin cituela, bere Esposa Jesus maitearen Biotzean bere anima emar: zuen. Ori bera gau oro beste ascoc eguiten du. Egercicio au zuc ere beti eguizu, ta nere contu chit poz andiaz eriotzari, beguira, obeto bicico cera, ta Jaunaren paque gozoan oitua becela, edo oitu nola, illco cera.

Baña eriotzaco ordu au etorri baño len, Jaincoac lecu, eta era ona ematen badizu ere ondo prestatzeco; eta ondo illtzeco, lau gauza aundi, edo lau pauso, lenago eman bearrac dituzu, eta zure viotzean orain ondo sartu, eta josi beardituzu. Lenengoa. Da zure atzeneco vorondatearen aguiria edo Testamentua eguitea. Bigarrena. Zure atzeneco Confesioa, edo penitenciaco Sacramentua. Irugarrena. Zure atzeneco Comunioa: eta oni Eternidaderaco bidezcoari ematen zayona becela Viatico Santua deritza. Laugarrena. Atzeneco Oleacio santua artzea.

## BIGARREN §.

*Testamentua eguitea.*

Gauza arrigarria da, juiciozco Cristavac, contuac cer zucendu, eta hacienda cer utzi duela, demboraz, eta ondo, Jaincoac eman dion vorondate libreaz ez usatzea, edo bere testamentua eguin gabe asco becela soseguz vicitzea. Bost cun eta gueyago ate, Medicuac diotenez, sortzeco eriotzac, edo derrepente sartzeco ditu: eta bost cun baño ere ascoz gueyago bide gorputzetan sartzeco izango dira: eta mirari andia da, uste gabeco edo bat batean eriotza gueyago munduan egunoro ez icustea.

Orregatic Jaincoaren Ministro Celosoac, eri bategana deitzen dutenean, lenengo eman

bear duen pausoa da, Testamentua demboraz, eta soseguz eraguitea: alduen moduric suaveenaz, eria chit beregan dagoen artean, San Agostiñen Ceruco consejua ondo adierazo beardio. Animaren contuaren gañeco Sermoi batean Santuac dio modu onetan: »*Fac, quod »faciendum est: fac testamentum, dum, tuus »es: nam, si expectaveris infirmitatem omnino »minis, & blandimentis du ceris, quo non »vis.*" Esan naidu: » Eguin beardezun eguitecoa eguizu: osasuna dezun artean, zure jabe »ceran artean. Testamentua eguizu cergatic »atzeneco gaitzeraco uzten badezu, echecoen, » edo aideen bildur, edo palaguaquin, naizuna » eragotzi, edo nai ezdezuna eraguingo dizute."

Santuaren consejuac guciaquin du, eta zurequin, eta nerequin ere bai: eta nic becela, marabedi bat ez iduquiarren zuc, alaere munduco aberatsenac becela, guc ere cer utzi badegu: ez hacienda eta ondasunac, baña bai gorputza, eta anima, gueyago diranac: ala zuc, ta nic Testamentu balioso bat modu onetan eguin bear degu.

## CRISTAVAREN TESTAMENTUA.

»Trinidade guciz Santu, Aita, eta Semea, » eta Espiritu Santua, iru persona distinto, eta

» Jainco eguiazco bacar baten icenean: nic N.
» beste munduraco biajean nagocela nere atzene-
» co vorondate, eta Testamentua modu onetan
» eguitendet. Lenena, nere Anima bere poten-
» cia, eta aleguin guciaquin, Jesu-Cristori be-
» re viotzean, bere amorioaz erosia becela,
» aguintzen, eta biurtzen diot. Nere gorputza
» lurrari, berea becela, aguintzen diot: ta
» onequin batean nere animaren ar gaizto izan
» diran deseo era gabe guciac, aren janari izan
» ditean, lurpean betico ondatzea naidet.

» Nere Animaren Imagiña Jaincoari berac
» bere antzera eguiña becela, aguintzen eta biur
» tzen diot; baña lotsa eta damu andiaz, ceren
» pecatuaquin itsustu, ta deseguin dedan. Ni-
» gan diran obra onac, Jaunaren graciari, bereac
» becela aguintzen diozcat; eta gaiztoac nere
» desdichari, ceñaren erremedioa Jaunaren
» misericordian uste dedan.

» Nere azqueneco vorondate au cumplierazo-
» tzeco Testamentaria, vorondate Santu gucien
» eguille ona Virgiña Maria: Jesu-Cristoc Guru-
» tzeco bere Testamentuan Amatzat utzi ciguna
» icentatzendet, eta Ama gozo onen amparo,
» eta piedadean ezperanza daucat, gucia nic
» deseatzen dedan baño ere obeto eraguingo
» duela. Nere escuan dauden irabaci on libre
» gucien heredero, edo jabetzat purgatorioco
» Anima santac icentatzen ditut, eta Jaincoa-

» ren aurrean nere vitarteco onac izan diteze-
» la, erregutzen diet.

» Gueroenean naidet, nere vorondate au beti
» firmea, eta dembora gucian baliocoa izan dedi-
» lla. Eta oraindaño pensamentuz, itzez eta
» obraz orren contra eguin dedan gucia, betico
» deseguiten det: eta nere vorondate onetan
» firme nago, eta viotz guztico negarraz firma-
» tzendet: eta nere eriotzaraño onetan irauteco
» propositu sendo batez sellatzendet. Testigu
» dirala San Jose maitea, nere Ainguera Guar-
» dacoa, nere iceneco Santua, San Miguel,
» San Gabriel, eta San Rafael, nere vorondate
» eta Testamentu onetan presente arquitzen
» diranac."

Ona Testamentu balioso, eta meritu andico bat, zuc eta nic, eta edoceñee iñoren calte, eta ofensa gabe, erraz edoceiñ demboraz, edoceiñ lecutan, eta mundu guciaren aurrean eguin dezaqueguna.

Baña munduco gaucetan sarturic daudenaquin, eta cer utzi edo disponitu dutenaquin, Jaincoaren Ministroac bere celoa eracutsi bear du, eta arrozoi suaveaquin eria demboraz, ta juicioan Testamentua eguitera movitu beardu: era ta gracia onetan esanaz, Espiritu Santuac diola: *Eriotzara baño len justicia eguizu.* Eccli. 14. Jaincoari anima, eta bacoitzari berea emateco, bere zor eta artzecoen contuac, ar-

guiro eta garbiro ajustatu, eta aguirian ifiñi ditzala, Juicio cabala, eta vorondate librea daucan artean, bere hacienda datorquionari eman diozala. Bere atzeneco vorondate au ondo eguitean, Jaincoaren vorondatea eguiten duela.

Ascori deabruac buruan sartzen, edo paratzen die, Testamentua eguiten badute, edo Sacramentuac artzen, illco dirala: ta ori bere aideac, eta eriarequin dabiltzanac ascotan esaten dute, eta Jaincoac daqui, cer intencioarequin, ta deabruaren guezur oyequin Testamentu eta Sacramentu gabe iltzeco, peligro andi, eta jaquiña da. ¡Ay cer calteac, cer ondorengo desdichac emendic datocen! Ondo adierazo bear zaye deabruen engañu ori, eta orrelacoric ez dezatela sinistu, eta are guchiago esan. Jaincoac bacarric gure urte, egun, eta orduac dauzca contaturic, ta aren vorondate santua dan artean, Testamentua eguiñ, eta Sacramentuac artu arren, iñore ere, eta ecere ere zu ecin illco zaitu, eta ez eriotza aurreratuco dizu.

Testamentua eguiñaz, carga aundi bat zure concienciatic botaco dezu, eta ori quendu, eta sosegu gueyagorequin egongo cera. Jaincoari, eta zure anima bacarrari ondo beguiratu, eta gauzac claro aguindu bearditzuzu, guero zu ill ezquero, aideen artean auci, eta deabruen aserreac utzi ezditzatzun, eta biciac beren animac, zure interes pusca bategatic, seculaco

galdu ezditzaten, eta aucitan zure ondasunac ondatu ezditecen. Aucia deabrua da ascorentzat: ta auciari ematen zayona, gueyencan deabruari ematenzayo: zuc nequez biribillatuac, deabruac erraz banatzen, eta laster ondatzen ditu.

Confesore celodunac, conseju onac onela eman bearditu, eta eriari esan edoceñez fiatu ez dedilla, ezpada Jaincozco guizon andi jaquinsu batean, dudetan aren consejua aciertoraco artuaz. Eria libre, eta soseguz Confesoreac utzi beardu, eta andic irten; edo beraren Testamentu, eta gaucetan ez sartu.

Egemploac obeto esango dizute: Ungriaco Erreguiña Santa Isabel, beti santa becela bici, eta eriotzaraco prestaturic bici bazanere, araco Jaincoaren avisoa izan zuenean, obeto prestatu zan; bere Testamentua era onean eguin zuen, eta zuena Jesu-Cristoren pobrechoai utzi cien, eta beretzat ill-jantzi pobre bacar bat gorde zuen, eta Sacramentuac, fede, eta amorio andiaz artu, eta Cerura joan zan.

S. Carlos Borromeo, bere Milango errira izurria etorri zanean, bereala Testamentuaz prestatu zan, eta pobreai, zuen gucia berena becela utzi, eta munduco cargaetatic arindu, eta Aingueru bat, edo asco becela, izurriac jo eta illtzen ceudenai Sacramentuac ematera, eta illtzen laguntzeraco, Jaunaren celoaz armatu,

edo maneatu, eta mirariac eguin cituen. ¡ Ah Jaungoicoaren Ministro estimatuac! ¡ Eta ceiñ egemplo ederra au! Santuac, munduco ondasunez betea, ta aberatsa izan bazan ere, carga ori arindu, eta Jaincoaren espirituaz bete, eta animen celoaz irazaqui, eta criotzaren ceiñ bildur guchi ceucan.

Escritura Sagraduac Ezequias Erreguearen egemploa contatzen digu. Bein batean au gaizquitu, eta oyean chit estua arquitzen zan: eta orra non Jaincoac Isaias santua mandatu triste batequin bialdu cion: eta dembora ayetaco lisuraz, eta oraingo solape, ta edergarrigabe, Jaincoaren partez, claro sentencia au esancion: *Dispone domui tuæ quia morieris tu. & non vives.* Ea, Erreguea: zureac eguindu: manea: manea zaite; Testamentua eguizu, ceren ill bear dezun. Au esan eta Profeta joan zan: Sentecia onen golpeaz chitez antsiatuzan: beste aldera giratu, eta negarrari, bereala eman cion.

Bere negar andien artean, justua becela, Jaincoagana bereala biurtuzan, eta biotz humill batez bere bicitzagatic oracio eguincion. Onetan Isaias Mandatari santuari bere bidean cijoala, Jaincoac aguindu cion: zoaz, eta erregue tristeari esayozu: aren oracioa aditu dedala; eta amabost urteco bicia luzatzen diodala. Ala milagrozco señale ciertoaz icusi zuen: eta guero ondo bici, eta ondo illtzan.

Orain zure contua: Erregue au Jaincotía, eta santua zan: Jaunaren gusto eta vorondatea viotz onaz eguin zuen, eta misericordiazco obra oñ andi asco eguin cituen. Eta orrez guztiaz ere, eriotzaren berri illunac golpe batean arritu zuen: ceren edadearen lorean, oguei eta emeretzi urteco Zalduna Jaincoaren Erreinuco Coroarequin, bere burua, Ceruco favore andien artean, Erregue icusten zuen. Eta Jaunaren mandatu edo ill bearren sentencia beregandic atera zuen.

¿Cer sustoa, bada, eriotzaren berri tristeaz, cer golpea artuco du, ez ura becela justu, ezpada zu becela pecatari danac? ¿ Ez ura becela Jaincoaren bidean zucen, ezpada zu becela oquer dabillenac? Argatic, nere Cristava, oraiñ, susto gabe, demboraz, eta Jaincoaren paquean, Testamentuaren eguinquizun ori gueroco bereala eguizu Ez arren zuzaz, eta ez edoceñez, gauza oyetaraco fiatu; eta ez zure jaquin uste, edo prudecian, dio Espiritu Santuac gueyegui estribatu bada gueren gaucetan Juez zucenac ezguera: mundua barbullez, edo necioz beteric dago: "*Stultorum infinitus est numerūs:*" éta cembat arrotuago, edo presumituago, ambat Jaincoagandic, eta aciertotic urrutiago. Consejari ona billazu, zure hacienda, Jaincoarequico, eta munduarequico galdu nai ezpadezu.

## IRUGARREN §.

*Azqueneco Confesioa.*

Ondo illtzeco, Penitenciaco Sacramentua, bear becela artzea, da bigarren Bidezcoaren Pausoa. Contuzco Jaun edo Persona batec jornada luce bat cer eguin duenean, bere echeco gauzac zucenduaz gañera, bideraco neurriac ere ondo artu beardítu. Echeco gauzac, Testamentua mugonez eguiñaz zucentzen dira: Bideracoac, Penitenciaco Sacramentu, edo Confesioaz. Jaincoaren Ministroa deitzen dutenean, eriaren aldera joangoda, eta alduen ondoena esango dio.

» Ea, Cristava, edo N. zure Jaincoaren Tri-
» bunaleco bidean sartzen cera. Eriotzaren sal-
» toaz beste mundura igaro, eta dan pensa-
» menturic chiquieneraño zure vici guztico con-
» tu eman beardezu. Baña badaquizu Jaunac
» bere Juicioan barcatzen duela, emen aren or-
» deco Ministroac barcatzen duen gucia. Or-
» retaco bada, Jaunaren icenean nator ni, zu-
» re pecatuen carga pisua queudu, eta ariña-
» go, eta errazago beragana joan zaitean. Actu
» Contricioco andi bat eguiazco danu, eta pro-
» posituaz, biotz guztitic eguin beardezu: eta
» guero zure culpac, ondo confesatzeco, nic
» pocic argui eman eta lagunduco dizut. "

Ceruco Medicu, edo confesoreac bere erregla seguru, eta jaquiñac ditu emen, noiz, eta nola lengo Confesioac berrirotu, edo confesio generala eraguin beardan. Erregla oriezaz baliatu, eta paciencia, eta prudenciaz armaturic lagunduco dio gaisoari. Eta onec orretaco ez dagoela, edo guero eguiteco aitzaquiac emanarren Confesoreac badaqui, orrela fiatu, eta Confesioa utzi bear eztala; baicic, aldan becela, bereala eraguin.

Beste Erreguearen Secretarioa, orrela eriotzac estuturic, arquitzen zan. ¡Ay ene dichagabea! cion tristeac: ¡Aimbeste erresma paper, Erregue servitzen escribitu, eta nere conciencia garbitzeco, pliego bat escribitu ezdet! ¡Aimbeste ceru urte oyetan erraz irabaci nezaqueala orain salvacioaren peligro onetan nago! Daquiguna da len chit ondo confesatuac, eta prestatuac ere, trance artan bildur oidirala.

Ezequias, len esan degun Erreguea justua eta contu onecoa zan: alacre eriotzaren ispilluan bere burua icusi, eta chit beregan sartu, ta Jaincoagana biurtu zan. Ala eriotzatic escapatu, eta bere Canticoan negarrez, eta pocez esan cion: » *Recogitabo tibi omnes annos meos in ama-* » *ritudine animæ meæ.* Isai. 38. Zure aurrean ustez, Jauna zucen ibilli izan naiz; baña alaere orain aviso onequin, nere vicico urte guciai, animaco damuaz errepaso bat eman bear-

diet, azturic, edo bestela penitencia gabe e-cer utzi ote dedan. ¡ Ah Cristava ! ¡ Erregue gazte Santu batec, bere eriotzaren peligro, eta bildurraz au eguin zuen ! ¿ Zuc pecatari galdua izanic, cer naico dezu ordu artan? Orain eguizu, egemplo jaquin onec eracusten duen becela.

Corteco Jaun andi bat Religioso baten guelara joan eta esan cion: Aita, nere bici guztico culpac soseguz, eta ondo Confesatu nai ditut, quezca, edo escrupulo gucietatic libratzeco. Galdetu cion orduan: Eta Confesio general ori cergatic eguin nai dezu? ¿ Aita, illcorra naiz edo ezdet ill bear? Bai. Bada ordu segururic esdet, eta gueroenean ill beardet. Azqueneco gaitzean, gauza onic eguingo ez det. Negarrez andrea batetic, umeac bestetic: gaitzaren erremedioac, burua zoratua, ta ordu artaraco utzi nuelaco viotzeco damu, eta arra. Ez orise asco balio duen anima bat det, eta orain Confesio general on bat paquean eguin, eta seguratu naidet: eta Jaincoac naiduenean eriotza betor.

Onec bai San Agustiñen consejua ondo artu zuela. » *Diabolus chyrographum infirmantibus* » *præbet: & nedepecatis doleant, fidem tribuit:* » *caro non deficere adhuc sperat: parentes ap-* » *plaudunt: Medici, ut lucrentur confortant:* » *& sic divites moriuntur in inferno.* Serm. 58 « ad Frat. Apub Castejon Tom. I. Miss. III.

Santuac dio: aberatsac illtzeco gaizquitzean, penitenciaric ez daquiten, deabrua bere seguridadeaquin batetic sartzen da, bestetic berac bici nai: aideac animatzen dituzte: Medicuac desengañatzen ez dituzte: eta ala aberats tristeac infernuan illtzen dira, ceren ill baño ere len infernuco trance, edo infernu bician sartzen diran.

Ah Cristava! Demboraz zure beguiac argui itzatzu, eta orduco contuac oraiñ ondo atera itzatzu. Osasunean guztia erraz da. Penitenciaco Sacramentu au pecatu gucien erremedio seguru, eta erraza da. Cembat eta orain gueyagotan, eta obeto confesatzen ceran, orduan ariñago, eta obeto. Alcandora edo erropa zuri lisibara azcotan dijoana, errazago, eta obeto garbitzen da. Confesioa Ceruco lisiba, edo Jesu-Cristoren odol preciosoaren baña sagradu bat da: ascotan or sartzen bacera, Jaincoaren Bildotz, edo Agnus Dei orrec zure animaco loyac quendu, eta egunoro garbiago gordeco zaitu,

## LAUGARREN §.

### *Iltzeco Comunio edo Viatico Santua.*

Eternidadeco biaje onetan ondo prestatu, eta ibiltzeco, bidezcoac becela, janaria artu bear dezu. Jaincoaren Ceruco erregaloen ar-

tean duen bocaduric ederrena, gozoena eta oneena da Jesu-Cristoren Gorputza, Cerutic etorri zan Ogui bicia, eta berez Ceruraco autetsi, edo escogituen janari, edo Oguia: " *Quit bo-*
» *num, & pulcbrum ejus? Frumentum electo-*
» *rum. Panis vivus, qui de cælo descendit.* Zac.
» 9. Ioan. 6. " Bidezcoai becela, bidean goseac ill ez guindecen Jesu-Cristoc janari au prestatu cigun. Au bear becela jateco, eria ondo paratzen da. Confesioaz pecatuac garbitu, ta Jaunaren gracian dagoela, Fede, Esperanza, eta Caridadeco actuaquin. Orrez gañera bere Lagun urcoaren amorioa beardu, iñorc ecertan ofenditu badu, viotzetic ari barcatuaz: eta berac iñor ecertan ofenditu badu ari Jaincoaren icenean barcacioa escatu, eta guciac paque, eta amorioan gueratuaz.

Irugarren pauso onetan, chit barrendic pensatu, eta pisatu bear dezu, nola Erregue gocien Erregue Soberanoac, Ceruetan daucan Magestade aundi gucia chiquitu, edo estaliric, bere misericordiazco entrañac gatic zu visitatzera etorri nai duen: eta nola escutatua cortiñapean becela, eta accidenteen eztalquiaquin badator ere, munduaren arguia bera dan arguiac aurrean etorrico diran eta Jaunaren Ministroa zuriz janciric zure anima garbia Ceruco eztayetara convidatzera.

Onec Ceruco gloriaren Jabea, eta ango

ondasun, eta prenda segurua, bere escuetan gorderic, erreverencia andiaz ecarrico dizu: esan nai det, Jesu-Cristo gure Jainco, eta Guizon eguiazcoa, bere amoriozco Sacramentuan, bocadu gozo bacar artan zure anima gracian badago, bere amorez seculaco berequin bat eguiteco. Zure guelan orrela Jaincoaren Ministroa sartzen danean, cer esan, eta cer eguin bear dan, guero esango degu, eta bitartean Santuen egemploac obeto eracutsico dizute.

Jesus Sacramentatu onen amorezco San Agustin iltzeco gaitzaz cegoela, Viatico Sagradua, esan dan becela, eraman cioten: eta araco bere biotzeco Jabe guztizco maitea icusi zuenean, aiñ eta onen poz andia artu zuen non bere lecuan viotza ecin cabitu citzayon, eta amorioz irazaqui, urtu, eta egaca irten bear ciola cirudien. Orduan Agustiñen biotz amorosoa, beti eztia baño gozoagoa, eta oraiñ bere bicico gozoena, Ceruco feliz baten guisa, bere espiritu guciarequin asi zan modu onetan: Ongui etorria cerala, nere Criadore eta Redentorea. Ongui etorri, gure Paqueguillea. Ongui etorri, gure gaitzen erremedioa. Ongui etorri, gure bideco Viaticoa. Ongui etorri, gure nequeen atsedena. Ongui etorri, gure penen consueloa. Ongui etorri, gure esperantcen saria. Onela Viaticoa devocioz artu; eta amorez bere anima santa Jaincoari emancion.

Santo Tomas Dotore Aingueruaren bicitzan contatzen da, gaizquitu, eta ceruraco avisoa izandu zuenean, confesatu, eta Viatico santua escatu zuela. Au ecarri ciotenean, gorputzean argala bacegoen ere, bere espiritu Ainguerzcoac indarrac emanic, lurrean etzin, edo belaunico jarri zan, eta gucizco errevereneia miragarriaz Jaun Soberanoa artu zuen: eta cequienac becela, humildade paregabeaz, Jaunari erregutu cion, beraren gañean, eta aren Magestadeagatic escribitu zuena, ontzat beraren gloriaraco artu ciozala, eta bere jaquiñez, edo ignorancia barcaciozala ceren bere obretan Jaunaren vorondatea beti billatu zuen. Jesu-Cristo bere Maisuari au esan, eta Viaticoa artu, eta Ainguerua becela, Ainguerruaquin cerura joan zan.

Anima justu, edo gracian daudenentzat Sacramentu au Ceruco bicitza bada, gaizto eta pecatuco eriotzan daudenentzat, eriotzan bicitzan becela, animaren eriotza da. Aita Recupito, ondo iltzeco Liburu baten eguilleac contatzen du, guizon bat gaizquitu, nai becela confesatu, Viaticoa artu, eta salvacioaren señale andiaquin ill zala, eta Conventu batean enterratu zutela. Arrats artan Sacristava Eliza icustera joan, eta gorputz ori topatu zuen ateraric, eta aren ondoan gigante itsusi izugarri bat. Lasterca igues Preladuagana joan zan.

Au bere Religioso guciaquin procesioan Eleizara jechi zan, ta Sacristavac esan zuena arrituric beguiz ecusi zuen.

Gigante icaragarri an cegoenari, Jaincoaren partez galdetu cion: ¿nor zan, edo cer nai zuen? Demonioa naiz ni, ta Jaunaren licencia det, gorputz au anima dagoen lecura, infernuetara eramateco. Baña Viaticoan artu zuen Hostia oraindic emen dauca: atera zayozu, bear dan lecuan gordetzeco. Forma sagradua atera cion. Orduan catea ots arrigarri bat aditu zan, eta puntu batean demonioa bere gorputz orrequin seculaco ondatu zan. Sacristava sustotic ill zan, ta beste asco gaizquitu ciran. Italian au icusi, ta aditu zuten guciac arritu ciran, ta gueroco utci gabe, berealá bicimodu berian sartu ciran, Jaun Sacramentatua bear dan becela bereu biotzetan artzeco, eta obeto servitzeco.

Aita Agustin Castejon, gure Misionero, ta Erregueren Predicadore famatuac contatzen du, Misio batean, ta Jubilioco Comunioan, guizon galdu bat ondo confesatzera atreyitu gabe, besteen artean sartu, ta gaizqui comulgatu zala. Emazteac, aren bici charraren berri cequienac becela aitu eta celatan egon, eta icusi zuen icara, eta pena andiaz, nola guizona, Judas bat eguiñic Eleizatic echera biurtu zan. Arratsaldean biac atzeneco Sermoyera Jaunaren bendi-

cioa artzera joan ciran. Guizon ori chit illun, ta sustoz igaroa echera zan: eta bere ustez reliquiaz beteric oyera joan zan. Baña ay ¡ Cer lo pisua, ta infernurañocoa izan zan! Biaramonean emazteac ill otza bere ondoan arquitu zuen: eta aren anima erretzen betico infernuan.

Guizon bata, eta bestea comulgatu ta ill ciran: baña bicitzan gaizqui confesatzera, ta comulgatzera oituric dagoena, iñoiz ere eriotzaco orduan baño gaizquiago comulgatu ez oida. Oyen caltean, zuc ondo bicitzen, eta ondo iltzen icasi ezazu.

## BOSTGARREN §.

*Oleacioa, edo azquen Uncioa.*

Eriotza, cordelac estutuaz dijoa; eta erioa postaca dator. Cristavaren atzeneco pausoa au da. Zure barrenean entzuten dezu Jaincoaren Pregoyac diona: Dembora gueyago izango ezta. Ay ¡ Bereala ill bearra: Juicioaren bildurra: ta betico cer izangodan laster icusi bearra! Eriaren bildur oyen artean, an daudenac diote: badijoa au: illtzen da: laster betor Oleacioa. Au da atzeneco Sacramentua, eta animaren sendagarria. Anciñaco gauza jaquiña da, Peleara edo agoniara (guztia da bat) guizonac irteteco lenago olioz eguin, edo eman oi

cirala, gorputza sendoago egoteco, eta etsayen lazoai burla eguiteco.

Ori bera Eliz Ama Santac illtzen edo agonian sartzeco dagoenaz, Oleacioan eguiten du, aren anima, eta gorputza etsayen contra sendoago armatzeco: oyec, ta beste virtuteac ditu Sacramentu onec. Sacerdotea, lutoz becela, moraduz janciric, guelan sartzen da: Olio Santua, eta mullo pusca batzuec artu, eta argui batequin oracio devociozco bat esango dizu, eta andaudenai ere bai, Jaincoari zugatic eta conveni bada, zure osasunagatic erregu diozatela. Zuri Sacramentu au ondo artzeco, onen virtuteac esango dizquitzu, eta Jaunaren escuetan osoro zure burua utzi dezazula, eta Oleacioa emango dizu.

Egemploac, eriari Extrema-Uncioa ematean, Jaincoac Sta. Maria Oñacense bere siervari eracusten cion, anima ondo prestatuac chit indar andia artzen zutela, eta len illac beçela, erori, triste seuden sentiduac, Santac icusten cituen, chit garbi, alai, ta eder guelditzen cirala. Eta Santa au berau iltzen cegoela, Jesu-Cristo Ainguera, eta Santuaquin, bere ondoan icusi zuen, beste gaisoac becela bera consolatzen, eta animari indarra ematen: Eta San Pedro Ceruco guiltza escuan zuela, araco convidatzen.

Santa Liduvina, Pazcoa egunean, iltzen ce-

goela, ta Oleacioa mai batean prest ceucatela Jesus ona, Ama Virgiña, Aingueru, eta Santu ascorequin etorri, consolatu, eta azquen Uncioa Cristoc berac eman cion, berac illtzeco candela santari escuan ifiñi cion, berac iltzen lagundu, eta berac anima gloriaraco bere biotzean artucion.

Ruperto Erromaco Erreguea illtzeco zorian cegoen; baña asco becela, Oleacioa artzeco gogo guchirequin, ta oidana, atzera, ceren etsayac, ta munduco ascoc esan dan becela, buruan sartzen dic, Testamentua eguin, eta Sacramentua artu, eta illco dirala. Baña Erregue oni Jaincoac argui eguin, eta contuan erorteco gracia eman cion eta chit gogotic escatu, eta Oleacioa artzen zuela icusi zuen, cein indar andia Sacramentuaz animac, eta gorputzac artzen zuten. Sendatu zan eta Jaincoa obeto servitu, eta Santuac becela luzaro urte ascoan bere Erreinoa gobernatu zuen. Eta orra, conveni danean, nola Oleatzeac, ez ill ezpada bicia ta osasun lucea ematen duen.

Ondo illtzeco bada, eta ondo illtzen icasteco, lau pauso oyec beti zure animaren beguietan iduquitzatzu: eta icusico dezu cer bicitza gozoa, eta cer paquezco eriotza izango dezun. Onela eguiaz erioari eriotza emango diozu. » *Ero mors tuæ, ó mors.* Osea. 13. " Ó erioa zure eriotza izango naiz. Basilisco edo Ersu-

guea gatic esan oida: baldin guizonarí lenago beguiratzen badio, icusiarequin illtzen duela; baña guizonac lenago ersuguea icusten badu, guizonac beguiratuaz, bera iltzen duela. Zure eta eriotzaren imagiña, edo representacio bicia eguiñ eguiña. Erioari lenago beguiratzen ezpadiozu, bere samintasun guciaz betico illco zaitu; baña zuc aurrea artu, ta ondo prestatuaz beguiratzen badiozu, erioa bera illco dezu, eta acullu zorrotza quendu ta gozo gozo eguingo dezu. Guero gaisoaren Consideracio eta Afectoac ifiñico dira.

# ONDO ILTZEN LAGUNTZECO

## EGERCICIOA.

### LENENGO §.

*Jaincoaren Ministroac eguin bear duena.*

Gaitzac lecu ematen duen artean, onec bere conseju santuaquin eriari Testamentua, esan dan becela eraguin, eta soseguz ondo confesatzen lagundu bear dio; eta Bidezcoaren Ceruco janari, edo Sacramentu guciz santua, Viaticotzat, bear becela artzeco manecatu edo preparatu bear du, modu onetan esanaz.

Berri onac Cristava N. berri onac: Ceruco ateac zuretzat erdiz erdi gaur idiquitzen dira, eta ango Medicu Soberanoa bere Biotzeco amorioaz dator andic zugana.

Bijoa campora barrengo tristeza, bada Ainguerucn alegria dan Jauna, gaur zure echean, eta biotzean artu bear dezu. ¡O cer dicha zurea!

Baldin eceren bearric edo gogoric badezu, berac gucia, zuc nai baño ere obeto eguingo, eta cumplituco dizu.

Baldin zure pecatuac bildurtzen bazaituzte, Jaun au bera da gucien erremedioa, eta pa- gu osoa.

Baldin etsayac, eta eriotzac icaratzen bazaituzte, bere graciaz guciac garaitzeco lagundu, eta animatuco zaitu.

Baldin osasuna conveni bazatzu; bere escuan dauca. Animacoa Sacramentuan ematendu, bai eta gorputzecoa ere, ondo badagoquizu. Bera da osasuna, eta bicitza.

Egun andia da au zuretzat: berri onezaz Ainguerua berac admiraturic, Jesu-Cristoren favorea icustera, eta bera adoratzera, berarequin datoz zugana.

¿Oraiñ bada Cristava, berri on au aditu, eta nor animatuco ezta? ¿Norc, tristezac utziric, eguiazco alegria biotzean artuco ez du? ¡Norc onelaco bisitan Jaunaren misericordia gucia beregan artu, eta beretzat betico naico ez du!

Ea bada cristava, idiqui, zabaldu, eta aleguiñaz viotz ori alaitu: ta Ceruco Etorcari, zure jaberic onenari ordu onean lecu emayozu: eta pecatari penitentecentzat Jaun au ceiñ ona, cein bera, eta gozoa dan, ceregan icusico dezu. Eta nic dacardan, eta ematen dizudan, artean bera ondo artzeco, zure viotzeco deseoric vicienaquin deitu, eta ezayozu.

Atoz Jauna atoz ordu onean, nere animaco

estatu pobre onetara: atoz nere Jaungoico, nere Eguille, nere Jabe, nere Salvadorea, ni erremediatzera, animatzera, consolatzera: zure amorez betetzera, eta zu arpeguiz arpegui Ceruan icusteco deseoz bete, irazaqui, eta prestatzera.

## RITUS
*Conferendi infirmis Eucharistiam.*

» SAcerdos cum Viatico ingressus ægroti cu- » bilum, dicat; ℣. *Pax huic domui.* ℟. *Et om-* » *nibus habitantibus in ea.*

Deposita custodia super mensam, genuflectit Sacramento, surgit, aspergit ægrotum in modum Crucis, postea circunstantes acua benedicta dicens: *Asperges me Dómine &c. Miserere mei, Deus, &c. Gloria Patri, &c.* Repetitur; *Asperges me &c.*

Postea: Adjutorium nostrum &c. Dómine exaudi &c. Dóminus vobiscum &c.

## OREMUS.

Exaudi nos, Domine Sancte Pater omnipotens æterne Deus, & mittere digneris Sanctum Angelum tuum de Cœlis, qui custudiat, foveat, protegat, visitet, atque defendat omnes habitantes in hoc habitaculo. Per Christum Dóminum Nostrum. Amen.

Deinde, Confiteor Deo, &. Tunc Sacerdos dicit: Misereatur, &. Indulgentiam, &. postea dicit: Dominus Jesus Christus, qui dixit Discipulis suis: Quæ cumque ligaveritis super terram, erunt ligata, & incœlo: & quæcumque solveritis super terram, erunt soluta, & incaelo: de cuerum numero cuambis indignos esse voluit: ipse te absolvat ob omnibus peccatis, quæcumque cogitatione, locutione, operatione egisti, & á nexibus pecatorum apsolutum perducere dignetur ad regna cœlorum: qui cum Patre & Spiritu Sancto vivit, & regnat in sæcula sæculorum, Amen.

Ad profesionem fidei: Sacerdos Crucem manu tenens quæerit vulgari sermone: Credis ,&c.

Sacerdoteac eriari galdetzen dio: Sinistendezu Aita Jaungoico Omnipotente Ceruaren, eta lurraren; icustendiran, eta icusten ezdiran gauza gucien Criadorean? Eriac erantzutendu: Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu, Jesu-Cristo aren Seme bacarrean? Bai, sinisten det.

S Sinisten dezu, Espiritu Santuan? Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua dirala iru Persona, eta eguiazco Jangoico bat? Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu, Jesu-Cristo gure Jauna, Guizona danez, Espiritu Santuaren graciaz sor-

tu, eta Santa Maria gloriosa gandic jayo zala beti Virgiña Semea jayo baño len, jayotzean, eta jayo ezquero geratzen zala? Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu, gure gucien salvacioa gatic padecitu zuela, gurutzean josiric ill zala? Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu, enterratua izanzala, Limbora jechi, eta Santuen animac aren etorrera Santuaren beguira ceudenac andic atera cituela? Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu, irugarren egunean illen artetic piztu zala, Ceruetara igo zala, Aitaren ascuietic dagoela, eta munduaren azquenean andic, viciac, eta illac guzgatzera etorri bear duela? Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu guciec gueren gorputzetan erresucitatu bear degula, beren gorputzetan bacoitzac merecitu zuen becela, edo saria, edo castigua eraman dezan? Bai, sinisten det.

S. Gurutzea adoratzera eman, eta esaten dio: Adoratzen, eta bedeincatzen zaitugu, Cristo; ceren zure Gurutze santuaz mundua erredimitu cenduen.

Sacerdoteac Gure Jesu-Cristoren Gorputza adoratu, eta artzendu, eta andaudenai eracutsi, eta eriari esaten dio.

S Orain Eliza Santa Catolicaren Sacramentuac, ceñaquin salvacioa alcanzatzen degun, confesatu bear dituzu. Sinisten dezu Eliza San-

ta Catolican ceña dan Cristau fielen Congregacio bat, Bateo eta beste Sacramentuaz, pecatuac barcatzen zaizquigula, eta betico viciaren heredero eguiten guerala? Bai, sinistendet.

S. Sinisten dezu Jesu-Cristoc azqueneco afarian esan cituen Consagracioco Itzen virtutez eta edocein Sacerdotec, dan pecatari eta indignoena badae re, beardan bezala ordenatu, eta ezaten dituela, oguiaren subtancia, edo itzac Cristoren Gorputz, eta ardoaren subtancia, edo izana aren Odol biurtzen dala: eta nic orain nere escuetan daucadana Cristoren eguiazco Gorputza dala? Bai, sinisten det.

S. ¿Orrezaz gañera, injuria, edo naigaberen bat eguin dizuten guciai barcatzen diezu viotzetic? Bai, barcatzen diet.

S. ¿Zuc itzez, edo obraz ofenditu dituzunai barcacioa escatzen diezu? Bai, escatzen diet.

Gauza oiec noiz, eta nola laburrago galdetu bear diran, Sacerdoteac ondo beguiratucodu.

Sacerdoteac orduan esatendu: " *Dómine*, » *non sum dignus*, *&c.*" eta eriac arequin ba» tean iru bider modu onetan. Jauna ez naiz » ni diña, zu nere echean, edo animan sar» tzeco; baña zure itzaz nere anima salvatuco da."

" *S. Accipe frater vel soror Viaticum Corporis*
» *Domini nostri Jesu-Christi qui te custodiat ab*
» *boste maligno, & perducat ad vitam æternam.*
» *Amen.*

» *Si non datur pro Viatico, dicat Corpus*
» *Dómini nostri Jesu Christi custodiat animam*
» *tuam invitam æternam. Amen.*

*S. Abluat digitos &c & dicat:* Dominus vobiscum: *Et cum spiritu tuo. Oremus. Domine Sancte Pater omnipotens æterne Deus, fideliter deprecamur: ut accipienti fratri nostro Sacro Sanctum Corpus Domini Nostri Jesu Christi filii tui, tam corpori, quam animæ prossit ad remedium sempiternum. Amen.*

Guero Sacerdoteac alduen moduric suaveenarequin eriari esaten dio: Oraindic Cristava, beste Sacramentu bat, edo atzeneco Oleacio Santua artzea, falta zatzu. ¿Naidezu, eta bear danean artzeco, ezcatzen dezu? Bai Jauna, bertatic, Jaincoac nai duaneco, escatzen det.

S. Bada nic ere beraren icenean emango dizut.

Baña nola eria urruti, edo iltzeco peligroan dagoenean, Viatico Santua, eta Oleacioa bereala artu bear diran, edo bata bestearen ondoren eman bear diran, ori nola dan orain esango degu.

## ORDO.

### *Ministrandi Sacramentum Extremæ Unctionis.*

Sacerdos: *Pax huic domini &c.* ut sup.

Orduan Sacerdoteac soseguz, ta beardan beeela eriari, entzuten badu, eta orretaco badago, adierazotzen dio Oleacioaren Sacramentua, eta onen virtuteac, esanaz modu onetan.

Jaincoaren vorondateaz bat gurea eguitea edo ari gurea sugetatzea, gucientzat conseju chit ona da; baña orain zuretzat, Cristava, da gauza bearra, bada zaude gaitz peligroso onec estutzen zaituala: berac ematen digun demboraz, eta misericordiaz baliagaitean animaco osasuna, eta guero gorputzecoa ere, conveni bada, alcantza dezazun.

Jaincoac eman cigun vicitza prestatua degula' badaquizu: eta ala, escatzen digunean vorondate osoaz viurtu bear diogu: eta zor au pagatzeco dembora etorri bazatzu, aleguera zaite, ceren muduco nequeetatic, eta Jaincoa ofenditzeco peligroetatic libratzen ceran, eta gorputzaren cargarequin pecatuen oitura edo costumbrea quentzen dezun.

Sacramentuen favore, eta socorrua arturic joango cera vicitza onetatic, eta au da mesede bat asco estimatu beardezuna. Sacramentuac

artu dituzun gucian Jesu-Cristoren Odol preciosoaz, garbitu, oleatu, edo ungitua izan cera. Orain artu bear dezun Sacramentua Oleacio Santua da.

Au artu ezquero, gure iritzian, seguru bazoazque Cerura. Aingueru eta Santuac beren laguntzac ezagutu, eta videra irtengo zaizquitzu. Ama Virgiñac berac besoetan artu, eta bere Semeagana onen señaleaz marcatua bezala eramango zaitu.

Olio santu onen uncioarequin gracia gueitu, edo gueyago ematen da: pecatu venial, edo ariñac barcatu, animaco eritasun, edo gaizac sendatu, pecatuaren reliquia, edo cutsuac quentzen dira. Olio Santu onec alegria esan naidu, eta onezaz zure anima beteco du.

Gorputzaren parte, edo sentiduen lecu jaquiñac olioz eguingo dira: oriequin eguin ciran gaitz, edo pecatuac, Jaincozco erremedio onequin cura ditecen. Onela deabruarequin peleatzeco sendoago irtengo cera: eta eriotzaco orduan aren lazo, eta tentacioetatic escapatzeco, eta etsai guciac garaitzeco.

Bear bada, eta zure animaraco conveni bada, gaitz onetatic libratuco cera: bada, Santiago Apostoluac dion bezala Sacramentu onec virtute ori badu. Baña bicitzaren esperantza, eta desco gueyegui iduqui bear ez dezu: animari obeto beguiratzeaz artu etzaitean: ezta

cer desconfiatu ere, Sacramentu onen gracia artzeco, bear dan estimacioa galdu ezdedin.

Beren osasunagatic Apostoluetara fielac cijoacen fedearequin, Sacramentu au artzera zuc etorri bear dezu. Dudaric ez iduqui, Jaincoaren misericordiari orain eguiten diozcagun Oracio santuac, Elizaren eta Jesu-Cristo gure Jaunaren personan, Jaincoác adituco dituela, bada iñore baño gueyago, eta obeto berac gure ona nai digu. Berari honra, ta gloria secula gucietan. Amen.

Sacerdoteac oraiñ, edo ondoen deritzanean, Jesu-Cristoren ondasunac, edo pecatuen barcacio, eta Indulgenciac beraren icenean adierazoco diozca, ta fedeaz biotza jaso, eta guztiac irabazteco intencio eguiten eracutsi eta lagunduco dio eriari. Irabaci esan albaño andiagoac dira, eriotzaco orduraco Cristavai Aita Santu ascoc Medalla, eta beste gaucetan emanac; eta Cofradia santuetan sartu eta vici izan diranentzat: eta ala conveni da eriac demboraz contuan paratzea, guero sentiduen usoa galdu, edo beregan ezpadaude ere. Esan bear dio Elizaren Oracioac, Pater noster Ave Maria, Credo eta Salvea, eta Jesusen icen gozoa berequico ascotan aoz edo biotzez bederic, esan ditzala, Jesus, Jesus milla bider, Jesus, Maria, eta Jose nerequin beti izan diteala.

Esan bear dio Sacerdoteac: Jaincoac gaitz

artatic libratzen badu, berari graciae ematera Eleizara joan bear duela. Beste onelaco conseju, eta gauza onac.

Oleacioa emateco gauzac prest dandela Sacerdoteac esaten du: *Pax huic domui &c. Asperges me, &c.* Adjutorium nostrum in nomine Dómini &c. *Dóminus vobiscum. &c. Oremus.* Introeat, Dómine Jesuchriste, domum hanc sub nostræ humilitatis ingresu, æterna felicitas, divina prosperitas, serena lætitia, charista fructuosa, sanitas sempiterna: effugiat ex hoc loco accesus dæmonum, adsint Angeli pacis, domumque hanc deserat omnis maligna discordia. Magnifica, Dómine, super nos nomen sanctum tuum &. benedic † nostræ conversationi: Sanctifica nostræ humilitatis ingresum, qui sanctus, & pius es, & permanes cum Patre, & Spiritu Sancto in sæcula sæculorum. Amen.

*Oremus.* Deprecemur Dóminum nostrum Jesum Christum, ut benedicendo benedicat † hoc tabernaculum, & omnes habitantes in eo, & det eis Angelorum bonum custodem, & faciat eos sibi servire ad considerandum mirabilia de lege sua: avertat ab eis omnes contrarias potestates, eripiat eos ab omini formidine, & ab omni perturbatione, ac sanos in hoc tabernasulo custodire dignetur. Qui cum Patre, & Spiritu, Sancto vivit, & regnat Deus in sæ-

cula sæculorum. Amen.

*Oremus*. Exaudi nos, Dòmine Sancte Pater omnipotens æterne Deus, & mittere digneris Sanctum Angelum tuum de cœlis qui custodiat, foveat, protegat, visitet, adque defendat, omnes habitantes in hoc habitaculo. Per Chistum Dòminum nostrum, Amen.

Guero Confesio generala, edo Ni pecataria, &c. pecatu venialac barcatzeco esaten da, ta Sacerdoteac: *Misereatur tui &c.* ℟. Amen. *Indulgentiam &c.* ℟. *Amen.*

In nòmine Pa†tris, & Fi†lij, & Spiritus †Sancti, extinguatur in te omnis virtus, diaboli per impositionem mànuum nostrarum, & per invocationem omniu Sanctorum Angelorum, Archangelorum, Patriarcharum, Prophetarum, Apostolorum, Martyrum, Confesorum, Virginum, atque òmnium simul Sanct. Amen.

Deinde ungit infirmum, dicens:

" *Ad oculos*. Per instan Sanctum Untionem †, » & suam piissiman misericordiam indulgeat ti» bi Dòminus quidquid per vissum deliquisti. » Amen.

" *Ad uares*. Per instam Sanctam Untionem » †, & suam piissimam misericordiam indul» geat tibi Dominus quidquid per auditum de» liquisti. Amen.

" *Ad nares*. Per instam Sanctam Unctionem

» †, & suam piissimam misericordiam indulgeat
» tibi Dóminus quidquid per adoratum deli-
» quisti. Amen.

" *Ad os compresis labijs*. Per istam sanctam
» Unctionem †, & suam piissimam misericor-
» diam indulgeat tibi Dóminus quidquid per
» gustum, & locutionem deliquisti. Amen.

" *Ad manus*. Per istam sanctam Unctionem †.
» & suam piissiman misericordiam indulgeat
» tibi Dominus quidquid per tactam diliquis-
» ti. Amen.

" *Ad pedes*. Per istam Sanctam Unctionem
» †, & suam piissimam misericordiam indul-
» geat tibi Dòminus quidquid per gressum de-
» liquisti. Amen.

" *Deinde Sacerdos dicit:* Kyrie eleison. Chris-
» te ereison. Kirie eleison. Paternoster, &c.
» Et ne nos inducas, &c. ℣ Salvum fac servum
» tuum. ℟. Deus meus sperantem inte. ℣. Mitte
» ei Dòmine auxilium de sancto. ℟. Et de Sion
» tuere eum. ℣. Sto ei Domine, turris fortitu-
» dinis. ℟. A facie inimici. ℣. Nihil proficiat
» inimicus in eo. ℟. Et filius iniquitatis no
» apponat nocere ei. ℣. Domine exaudi oratio-
» nem meam, &c. Dominus vobiscum. &c.

" *Oremus*. Domine Deus, qui per Apostolum
» tuum Iacobum locutus es Infirmatur quis in
» vobis Inducat Presbyteros Ecclesiæ, & orent
» super eum, ungentes eum Oleo in nomine

» Domini : & oratio fidei savabit infirmum, &
» alleviabit eum Dominus: & si in peccatis
» sit, remittentur ei: cura, quæsumus, Re-
» demptor noster gratia Sancti Spiritus lango-
» res istius infirmi, ejusque sana vulnera, &
» dimitte peccata, adque dolores cunctos men-
» tis, & corporis ab eo expelle, plenanque
» interius, & exterius, sanitatem misericordi-
» ter redde, ut ope misericordiæ tuæ restitu-
» tus, ad pristina reparetur officia. Qui cum
» Patre, & Spiritu Sancto vivis, & regnas
» Deus in Sæcula sæculorum. Amen.

" *Oremus*. Respice, quasumus, Domine, fa-
» mulum tuum N. in infirmitate sui corporis
» fatiscentem, & animam refore, quam creas-
» ti; ut castigationibus emendatus, se tua sen-
» tiat medicina salvatum. Per Christum Do-
» minum nostrum. Amen.

" *Oremus*. Domine Sancte, Pater omnipo-
» tens æterne Deus, qui bendictionis tuæ gra-
» tiam ægris infundendo corporibus, factu-
» ram tuam multiplici pietate custodis: ad
» invocationem tui nominis benignus asiste,
» ut famulum tuum ab ægritudine liberatum,
» & sanitate donatum, dextera tua erigas, vir-
» tute confirmes, potestate tueris atque Eccle-
» siæ tuæ Sanctæ cum omni desiderata pros-
» peritate restituas." Per Christum Dominum
nostrum. Amen.

Oleacioco oracio oyec esan, eta Sacerdoteac aviso, eta conseju santuac eriari emango diozca, Jaincoaren vorondatea bada, eriotza santu bat izandezan: etsayen tentacioen contra animatuco du.

Ur bedeincatua, eta gurutze, edo Santo Cristoa an utzico diozca, ari ascotan beguiratu, eta devocioz muñ eguiteco, eta bere biotzean sartzeco.

Echecoac ere contuan paratuco ditu, baldin berriz confesatzea eriac nai, edo escatzen badu, edo gaitzac estutzen, edo agonian sartzen badu, bereala Jaincoaren Ministroa avisatu, edo deitu dezatela illtzen lagun diozan, eta aren anima Jaunari Eleizaren oracioaquin encomenda diozan.

## INDULGENCIA PLENARIA,

### EDO PECATUEN BARCACIO OSOA,

*Aita Santu Benedicto amalaugarrenac Cristavari eriotzaco orduraco 1747 garren urtean. emana.*

Indulgencia andi au, besteac becela, eriac irabazteco, Confesore Jaun orretaraco Aita Santuaren escua duenac, Sracramentuac artu ezquero avisatuco du, eta Bendicioa oraiñ esango dan becela, Aita Santuaren icenean emango dio.

## MODUS.

"Indulgentiam pro articulo mortis imper-
» tiendi á Papa approbatus in Constit. Pia Ma-
» ter, Nonis Aprilis an. 1747.

» Adjutorium nostrum, &c.

» Ne reminiscaris Domine delicta famuli tui
» (ancillæ tuæ, & sic dinceps) neque vidictam
» sumas de pecatis ejus. Kirie eleison, &c.
» Pater noster, &c. Et ne nos inducas, &c.
» ℣. Salvum ſac servum tuum. ℟. Deus meus
» sperantem in te. ℣. Domine exaudi, &c. Do-
» miminus vobiscum, &c.

» *Oremus.* Clementissime Deus, Pater mi-
» sericordiarum, & Deus totius consolationis,
» qui neminem vis perire in te credentem, &
» sperantem; secundum multitudinem mise-
» rationum tuarum respice propitius Famulum
» tum N. quem tibi vera ſides, & spes comen-
» dant. Visita eum in salutati tuo, & per uni-
» geniti & Passionem, & mortem omnium ei
» delictorum suorum remissionem, & veniam
» clementer indulge ut eius anima in hora exi-
» tus sui Te Iudiceem propitiatum inveniat, &
» in sanguine eiusdem Filij tui ab omni ma-
» cula abluta, transire ad vitam mereatur per-
» petuam. Per eundem Christum Dominum nos-
» trum. Amen.

» Tum dicto, Confiteor Deo, & Misereatur,

» &c. Sacerdos dicit:

»Dominus noster Iesus-Chistus, Filius » Dei, qui Beato Petro Apostolo suo dedit po- » testatem ligandi, adque solvendi, per suam » piissimam misericordiam recipiat confesio- » nem tuam, & restituat tibi stolam primam, » quan in Baptismate recepisti: & Ego facul- » tate mihi ab Apostolica Sede tributa Indul- » gentiam plenariam, & remissionem omnium » peccatorum tibi concedo. In nomine Patris, » & Filij, & Spiritus Sancti.

»Per sacrosancta humanæ reparationis Miste- » ria remitad tibi Omnipotens Deus omnes præ- » sentis, & futuræ vitæ pœnas, Paradisi portas » aperiat & ad gaudia sempiterna perducat. A- » men. Benedicat te omnipotens Deus Pater, & » Filius, & Spiritus Sanctus Amen.

Azquenean edo Sacerdoteari ondoen deritzanean, Bulda Santuaren Indulgencia emangodio.

Echecoac, edo eriari laguntzen diotenac contuan ifinico ditu, nola deabruac ayenatzeco, ur bedeincatuaz noicean beiñ eria eta guela eguitea, Eleiza Santaren erremedioa dan eta nola usatu bearduten, eta eria bere neque edo gaitzaren estutasunetan animatu, eta consolatu bearduten, beren conseju onaquin, eta platica santuaquin: eta beste gauzac, eta munduco vanidadezco, eta itz gaiztoac eriaren aurrean ez dirala esan, edo contatu bear; baicic

animaren calteco etsayac pecela andic ayenatu.

*Ordo Comendationis animæ.*

Kirie eleison.
Christe eleison.
Kirie eleison,
Sancta Maria ora pro eo.
Omnes Sancti Angeli, & Archangeli, orate.
Sancte Abel, ora pro eo.
Omnes Chori Iustorum, ora pro eo.
Sancte Abraham, ora pro eo.
Sancte Ioanes Baptista, ora pro eo.
Sancte Ioseph, ora pro eo.
Omnes Sancti Patriarchæ & Propetæ, or.
Sancte Petre, ora pro eo.
Sancte Paule, ora pro eo.
Sancte Andrea, ora pro eo.
Sancte Ioanes, ora pro eo.
Omnes Sancti Apostolin & Evangelistæ, or.
Omnes Sancti Disciputi Dñi, orate pro eo.
Omnes Sancti Inocentes, orate pro eo.
Sancte Stephane, ora pro ęo.
Sancte Laurenti, ora pro eo.
Omnes Sancti Martires, orate pro eo
Sancte Silvester, ora pro eo.
Sancte Gregori, ora pro eo,
Sancte Agustine, ora pro eo.
Omnes Sancti Pontifices: & Confesores, orate.

Sancte Benedicte ora pro eo.
Sancte Francisce ora pro eo.
Omnes Sancti Monachi, & Eremitae, orat.
Sancta Maria Magdalena, ora pro eo.
Sancta Lucia, ora pro eo.
Omnes Santœ Virgines, & Viduæ, orat.
Omnes Sancti, & Santæ Dei, intercedite &c.
Propitius esto. parse ei Domine.
Propitius esto. Libera eum Domine.
Propitius esto. Libera eum Domine.
Ab ira tua. Libera eum Domine.
A periculo mortis. Libera eum Domine.
A mala morte. Libera eum Domine.
A pœnis inferni Libera eum Domine.
Ab omni malo. Libera eum Domine.
A potestate diaboli. Libera eum Domine.
Per Natibitatem tuam. Libera eum Domine.
Per Crucem, & Passionem tuam. Libera &.
Per mortem, & Sepulturam tuam Libera &.
Per gloriosam Resurectionem tuam. Libera eum Domine.
Per Admirabilem Ascensionem tuam. Libera eum Domine.
Per gratiam Spiritu Sancti Paracliti. Libera eum Domine.
In die Iuditij. libera eum Domine.
Pecatores. Te rogomus audi nos.
Ut ei parcas. Te rogamus audi nos.
Kirie eleison. Christe* eleison. Kirie eleison.

Deinde eum in agone sui exitus anima anxiatur dicantur sequentes Orationes.

Santuai Letaniaquin onela deitu, ta eria agonian sartzean, urrengo Eleizaren oracioac esaten dira.

» Proficicere anima Christiana de hoc mundo
» in nomine Dei Patris Omnipotentis, qui te
» creavit: in nomine Iesu Christi Filij vivi,
» qui pro te pasus est: In nomine Spiritus
» Sancti, qui in te effusus est: in nomine An-
» gelorum, & Archangelorum: in nomine Thro-
» norum, & Dominationum: in nomine Princi-
» patuum, & Potestatum: in nomine che-
« ruvin & seraphin: in nomine Patriarcha-
» rum, & Prophetarum: in nomine Sancto-
» rum Apostolorum, & Evangelistarum: in no-
» mine Sanctorum Martyrum & Comfesorum:
» in nomine Sanctorum Monachorum, & Ere-
» mitarum: in nomine Sanctorum Virginum, &
» omnium Sanctorum, & Sanctarum Dei: ho-
» die sit in pace locus tuus, & habitatio tua in
» Sancta Sion. Per eumdem Christum Domi-
» num &c.

» *Oratio*. Deus misericors, Deus Clemens,
» Deus qui sequndum multitudinem misera-
» tionum tuarum pecatorum penitentium de-
» les, & prætitorum criminum culpas venia re-
» missionis evecuas: respice propitius super hunc
» famulum tuum N. & remissionem omnium,

» peccatorum suorum tota cordis confesione pos-
» centem deprecatus exaudi. Renova in eo,
» piisime Pater quitquit terrena fragilitate cor-
» rutum, vel quidquid diabolica fraude viola-
» tum est, & unitati corporis Ecclesiæ mem-
» brum redenptionis annecte. Miserere Domine
» gemitium, misere lacrymarum eius: & non
» habentem fiduciam, nisi in tua misericordia,
» ad tuæ sacramentum reconociliationis admit-
» te. Per Christum Dominum nostrum Amen.

» Commendo te omnipotenti Deo, charissime
» frater, & ei cuius es creatura commito: ut
» cum humanitatis debitum, morte intervi-
» niente persolveris, ad Auctorem tuum, qui
» te de limo terræ formaverat, revertaris. E-
» gredienti itaque animæ tuæ de corpore,
» splendidus Angelorum cœtus occurrat: ju-
» dex Apostolorum tibi senatus adveniat: can-
» didatorum tibi Martirum triumphator exer-
» citus obviet: liliata rutilantium te Confesso-
» rum turma circundet: jubilantium te Vir-
» ginum chorus excipiat: & beatæ quietis in
» sinu Patriarcharum te complexus astringat:
» mitis atque festivus Christi Iesu tibi aspectus
» appareat, qui te inter asistentes sibi jugi-
» ter interesse decernat. Ignores omne, quod
» horret in tenebris, quod stridet in flammis,
» quod cruciat in tormentis. Cedat tibi teter-
» rimus satanas cum satellitibus suis: in ad-

» ventu tuo, te comitantibus Angelus, contre-
» miscat, atque in æternæ noctis chaos imma-
» ne diffugiat. Exurgat Deus, & disipentur
» inimici eius, et fugiant, qui ederunt eum,
» á facie eius. Sicut deficit fumus deficiant si-
» cut fluit cera á facie ignis, sic pereant pec-
» catores á facie Dei, et justi epulentur, &
» exultent in cons, pectu Dei. Confundantur
» igitur & erubescant omnes tartaræ legiones,
» & ministri sanetæ iter tuum impedire non
» audean.

» Liberet te á crutiatu Christus, qui pro te
» crucifixus est. Liberet te ab æterna morte
» Christus, qui pro te mori dignatus est. Cons-
» tituat te Christus Filius Dei intra Paradisi sui
» semper amœna virentia, & inter oves suas te
» verus ille Pastor agnoscat. Ille ab omnibus
» peccatis te absovat; atque ad dexteram suam
» in electorum suorum te sorte constituat, Re-
» demptorem tuum facie ad faciem videas, &
» præsens semper atsistens manifestissimam
» beatis oculis espicias veritatem. Constitutus
» igitur inter agmina beatorum contemplatio-
» nis divinæ dulcedine potiaris in sæcula sæ-
» culorum Amen.

» *Oratio*. Suscipe Domine servum tuum in
» locum sperandæ sibi salvationis á mi sericor-
» dia tua. Amen.

» Libera Domine animam servi tui ex om-

» nibus periculis inferni, & de laqueis pœna-
» rum & ex omnibus tribulationibus. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Henoc, & Eliam de communi mor-
» te mundi. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Noe de diluvio. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Abraham de Ur Caldæorum. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Job de passionibus suis. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Isac de hostia, & de manu Patris
» sui Abrahæ. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Lot de Sodomis, & de flamma ignis.
» Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Moysen de manu Pharaonis Regis
» Ægyptiorum. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti Danielem de Lacu Leonum. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti tres pueros de camino ignis ardentis
» & de manu Regis iniqui. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» librasti Susanam de falso crimine. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut
» liberasti David de manu Regis Saul, et de

» manu Goliæ. Amen.

» Libera Domine animam servi tui, sicut » liberasti Petrum & Paulum de carceribus.

» Et sicut beatissimam Theclam, virginum » & martirem tuam de tribus atrocissimis tor» mentis liberasti, sic liberare digneris ani» mam huius servi tui, & tecum facias inbo» nis congaudere cœlestibus. Amen.

*Oratio.* Commendamus tibi Domine animan famuli tui N. precamurque te Domine Iesu Christe Salvator mundi, ut propter cuam ad terram misericorditer descendisti Patriarcharum tuorum sinibus insinuare non renuas. Agnosce Domine creaturam tuam, non á diis alienis creatam, sed á te solo Deo vivo, & vero: quia non est alius Deus præter te & non est secundum opera tua. Lætifica Domine animam eius imconspectu tuo, et ne memineris iniquitatum eius antiquarum, et ebrietatum, quas suscitavit furor, sive fervor mali desiderii. Licet enim peccaverit, tamen Patrem, et Filium, et Spiritum Santum non negavit, sed gredidit, et celum Dei in se habuit, et Deum, qui fecit omnia, fideliter adoravit.

» *Oratio.* Delicta juventutis, et ignorantias ejus quæsumus, ne memineris, Domine; sed secundum magnam misericordiam tuam memor esto illus in gloria claritatis tuæ. Aperiantur ei cœli, collætentur illi Angeli. In regnum

tuum Domine servum tuum suscipe. Suscipiat eum Sanctus Michael Archangelus Dei, qui militiæ cœlestis meruit principatum. Veniant illi obviam Sancti Angeli Dei, et pertucant eum in civitatem cœlestem Ierusalem. Suscipiat eum beatus Petrus Apostolus, cui á Deo claves regni cœlestis traditæ sunt. Adjuvet eum Sanctus Paulus, Apostolus, qui dignus fuit esse vas electionis. Intercedat pro eo Sanctus Ioanes electus Dei Apostolus, cui revelata sunt secreta cœlestia. Orent pro eo omnes Sancti Apostoli, quibus á Domino data est potestas ligandi, adque solvendi. Intercedant pro eo omnes sancti, & electi Dei, qui pro Christi nomine tormenta in hoc sæcula sustinuerunt: ut vinculis carnis exutus perveniere mereatur ad gloriam regni cœlestis, prestante Domino nostro Iesu Christo. Qui cum Patre, & Espiritu Sancto vivit & regnat in sæcula sæculorum. Amen.

» Si anxiatur anima dicitur Ps. 9 Confitemini Domino, & totus Ps. Beati immaculati &c.

» Egressa anima de corpore dicatur: Subvenite Sancti Dei, ocurrite Angeli Domini, suscipientes animam eius, offerentes eam in conspectu Altissimi. Suscipiat te Christus, qui vocabit te, & in sinum Abrahæ Angeli deducant te. Suscipientes animam eius, offerentes eam in conspectu Altissimi. Requien æternam, &c.

Offerentes eam in conspectu Altissimi. Kirie eleison, &c. Pater noster. Et ne nos inducas &c. Requiem æternam dona ei Domine &c. Aporta inferi, Erue Domine Animam eius &c.

»*Oremus*. Tibi, Domine commendamus animam famuli tui N. ut defuntus sæculo tibi vivat: & quæ per fragilitatem humanæ conversationis peccata commisit, tu venia misericordiosissimæ pietatis absterge. Per Christum &c."

Oiec dirade, nere Cristava, ill arteraño beti Eliza Santac, ondo iltzen laguntzeco, eguiten diozcan oraciotic usatuen, eta jaquiñenac. Eta zuc obeto aditzeco, zure eriotzaco orduan, zugatic cer eguingodan, eta Jaincoari cer escatu zayon, Euzqueraz esango dizut guztia.

Soseguz iltzeco, dembora eta dicha izaten badezu, jaquizu, esan diran Letania, edo Escari laburretan, Jaincoari zugatic erregutzen zayola, vitarteco iñiñiaz Ama Virgiña, Aingueru, eta Santuac, Abel justutic asi, eta beste diran guciac. Orren ondoren Eliza Ama Santac zure animaren Gomendio, edo recomendacioa, zu ill artean, modu onetan eguitendu.

## ANIMAREN RECOMEDACIOA
*edo Gomendioa.*

Zoaz zure bidean anima Cristava, mundu onetatic irtenzaite, Aita Jainco gueiz poderoso, ecerecetic eguin cinduenaren icenean. Jesu Cristo Jainco viciaren Seme bere eriotzarequin erredimitu cinduenaren icenean. Espiritu Santu zuri eman citzatzunaren icenean. Aingueru, eta Arcangelen icenean. Trono, eta Dominacioen icenean. Principadu, eta Potestadeen icenean. Querubin eta Serafiñen icenean. Patriarca eta Profeten icenean. Apostolo, eta Evangelisten icenean. Martiri eta Confesoreen icenean. Monge, eta Ermitañoen icenean. Virgiña, eta Alargun Santen icenean. Jaincoaren Santu, eta Santa gucien icenean. Oriec guciac ampara zaitzatela, eta zure lagun izan diteala. Gaurco egunetic paque, eta descantsuzco lecua zuretzat izan dedilla, eta zure viciteguia Ceruco Sion Santuan: Jesu-Cristo gure Jaunaren merecimentuac gatic. Amen.

*Bigarren Oracioa.* »Jainco misericordioso, Jangoico bera, Jaungoico zure piedadearen aunditasunaz batean eguiazco penitenteen pecatuac barcatzen, eta zure graciaz igaroco culpen manchac quentzen dituzona: zure misericordiazco beguiaz beguira zayozu N. zure sier-

bo oni, ceñac bere viotzeco, eta eguiazco confesioaz bere culpa gucien barcacioa escatzen dizuc. Aita guciz poderosoa, anima onetan gaizqui eguiñic arguitzen dan gucia, dala lurreco argaltasunaz, dala deabruaren engañuz, eta zure odol preciosoaz erredimitutaco miembroa bezala, Eleiza Santa Catolicaren gorputzarequin bat eguizu. Onen andia eta negarren lastima iduqui zazu Jauna: bada Zugan, eta ez bestegan, eta zure misericordian confianza iduquidu. Zure Eleiza Santaren umea bezala arrezazu zure gracian Jesucristo gure Jaunaren meritoacgatic. Amen.

*Irugarren Oracioa.* "Anai guciz maitea, Jainco omnipotente zure Criadoreari, ceñarena ceran, encomendatzen zaitut: berac nai duenean, eriotzari zure zorra pagatu, eta zure eguille lurreco autsetic eguin cinduenagana biur zaitecen. Zure Anima gorputzetic dijoanari bada Ainguerucn egercitu ederra datorquiola videra: Apostolo santu zure juezac ondo artu zaitzatela: Martiri Santu triunfadoreac bidera irten diteala: Confesore gloriosoac lagun dizazutela: Virgiña garbiac ampara zaitzatela; eta Patriarcac beren paque lecu: eta besoen artean artzaitzatela. Aleguere, eta gozo Jesu Cristoren arpeguia aguertu daquizula, eta bere Cerutarren artean betico ipiñizaitzala. Infernuco illuntasunac, ango su, gar-

rac, ango tormentuac zurequin cer icusirac, ango tormentuac zurequin cer icusiric izan ez dezatela. Quen emendic, ta urruti dijoala Satanas izugarria bere tropa guciaquin: eta Aingueruac zuri laguntzera etorri, eta deabrua igues bere toquira onda dedilla.

"Jaiquibedi, betor gure Jaungoicoa, eta arrazabite aren etsaiac: eta aren Magestadea ecin icusi dutenac, aren beguietatic aiena bitez: Quca becela deseguin diteala, eta nola arguizaguia suaren aldean erre, galdu, eta urtutzen dan ala pecatariac Jaincoaren beguietan galdu diteala. Justuac berriz favorez, eta erregaloz Jaincoaren aurrean beteac izan diteala. Lotsa bitez bada, eta onda bitez betico Satanas, eta aren infernuco lagun guciac eta zuri Ceruco videa eragoztera atrevitu ezditeala.

» Jesu-Cristo gure Jaun, zugatic Gurutzean egon zanac, infernuco penetatic libra zaitzala. Jesu-Cristo gure Redentore, zugatic eriotza artu nai izan zuenac, betico eriotzatic libra zaitzala. Jesu-Cristo Jaungoico biciaren Seme, zure Salvadore eguin zanac bere Paraisuco Vergel, eta gloriaco lore ederren artean sartu saitzala: eta animen Artzai nagusi eguiazcoaz bezala zure anima bere ardien artean beretzat ezagutu, eta lecua dizula. Sacerdote andiac bezala berac zure pecatu gucien barcacioa dizula, eta suerte eta zorioneco Justu eta Santuen artean, zure Salvadorearen arpeguia cla-

ro, eta beti aren escuetic ecusteco diña eguin zaitzala: eta beraren aurrean zaudela, begui zorionecoaz eguia guciz arguia icusi dezazula: eta Jaincoaren semeen artean jarriric, beraren edertasun gucia icusi, ta goza dezazula secula seculacoetan Amen.

*Gure Jaungoicoari animagatic escariac.*

Arrezazu, Jauna, zure siervo au bere salvacioco, zure misericordiagandic uste duen lecu artan. Beti erantzuten da Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima infernuco peligro gucietatic, pena, eta estutasun gucietatic. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Enoc, eta Elias munduco eriotza jaquiñetic libratu cinduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Noe, diluvioco uretan ito etzedin libratu cenduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Abraan Caldeoen su eta garretatic libratu cenduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Job Santua bere neque, eta penetatic libratu cenduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Isac bere Aitaren sacrificio, eta eriotza-

tic libratu cenduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Lot Sodomaco sugar izugarrietatic libratu cenduen bezala. Amen.

« Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Moises Faraon Egiptoco Erreguearen escuetatic libratu cenduan bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Daniel Leoi goseteetatic libratu cenduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, iru guizon guztiac Babiloniaco labe irazaquitic, eta Erregue gaiztoaren escuetatic libratu cinduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Santa Susana falso testimoniotic libratu cenduan bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, David, Saul Erreguearen, eta Goliat Gigantearen escuetatic libratu cenduen bezala. Amen.

» Libraezazu, Jauna, zure siervo onen anima, San Pedro, eta San Pablo Apostoloac carcela, eta calabozoetatic libratu cinducen bezala. Amen.

» Ta Santa Tecla Virgiña eta Martiri bienaventurada, iru tormentu icaragarrietatic libratu cenduen bezala, ala sure siervo onen anima libratzea nai daquizula, zurequin beti

gozatzen egon dedin, Amen.

*Laugarren Oracioa.* » Zuri, Jauna, zure siervo onen anima ematen dizugu, ta zuri munduaren Salvadore Jesu-Cristo gure Jauna, erregutzen dizugu, onegatic zure misericordiaz lurrera jachi ciñan bezala, ala zure adisquideen artean au contatzea nai daquizula. Ezagüezazu, Jauna, zure echura au ez beste guezurrezco Jaincoc, baicic Zuc, Jaungoico eguiazco, vici, bacarrac eguiña; ceren eguiaz Zu baicic, Jangoicoric, eta Zuc bezalaco obrac eguiten dituanic ezdan. Onen anima zure presencian aleguera, ta consolaezazu, ta ez arren, Jauna, acordatu onen igaroco culpaz, eta eragabeco, eta gueyegui eguin cituen gaizquiaz; bada pecataria izan bada ere, orregatican Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua sinistu, eta confesatu du Jainco eguiazco bat: zure celo santua beregan iduqui du, eta Zu Jaungoico gauza gucien Eguillea fielquiro adoratu zaitu.

*Bostgarren Oracioa.* Erregutzen dizugu Jauna, onen gaztetaco pecatuac, eta jaquiñez, edo iguoranciac aztu ditzatzula. Zure misericondiaz onequin usaezazu, ata onen animaz zure gloriaco arguitasunean acorda zaite. Idiqui bedi Cerua onentzat: aleguera bite Ainguerruac onequin. Zure Erreinuan zure siervoa arrezazu, Jauna. San Miguel Ainguerua, Ceruco Egercituen Capitan izatea merecitu zue-

nac onen anima ardezala. San Pedro Apostolo, Ceruetaco Erreinuaren guiltzac dituenac ardezala: San Pablo Apostolo Jaincoaren ontzi señalatu eguiteco diña izan zanac lagun diozala: San Juan Apostolo, eta Evangelista, Cristoren Disciputo laztan, Jaincoaren misterio ezcutatuac icusi cituena, onen bitarteco izan dedilla: Apostolo Santu pecatariac lotu, eta pocatuen cateetatic ascatzeco escua iduqui zutenac, onegatic erregu dezatela: Santu eta Jaincoaren escogitu guciac, Jesu-Cristoren icenean munduco tormentu andiac eraman cituztenac, onegatic berari esca diozatela; gorputz illcor onen carcelatic anima au irtetean Ceruco Gloria gozatzera igo dedin Jesu-Cristo gure Jaunaren meritoaegatic, ceña Aitarequin batean vici dan, eta erreinatzen dagoen seculen secula gucietan." Amen.

Oyec dira, Cristava, Eleiza Santac Jaincoari zure anima aguintzeco eguingo dituen Oracioac, edo Errecomendacioa, eta zu, berac nai duenean, onela illco cera: punto artan bertan mundua zuretzaz, eta zu munduarentzat, bioc batean acabatuco cerate. ¡Azqueneco asnasea Jaincoaren gracian ematen badezu, ó cer dicha cer gloria vicia! Zu ill, eta Sacerdoteac esango du.

» Atozte Jaungoicoaren Santuac, Jaunaren Ainguerruac, bidera irten zaitezte, ta gorputz

onetatic joan dan anima zuen escuetan arrezazute, ta Jaunaren aurrean ofrecizazute. Jesu-Cristo gure Jaun deitu zaituenac artu zaitzala, eta aren Ainguerunac Paraisura zaramaizquitela.

Descansu beticoa Jaincoac zure animari diola: Eta betico arguia aguertu daquiola.

*Oracioa.* Zuri, Jauna, N. zure siervo onen anima aguintzen dizugu: mundu onentzat illdan ezquero, zuretzat vici dedin, eta lurreco jolas, edo araguiaren argaltasunaz eguin cituen pecatuac, zuc zure misericordia guciz andiaz barcazayozcatzu: Jesu-Cristo gure Jaunaren icenean."

Eleiza Ama piadosaren, edo Espiritu Santuaren eriaquico contu, eta gobiernoa, da gauza alde gucietara miragarria: bere Ritual, eta Manual sagraduan Sacerdoteari, Sacramentuac ondo emateco, eta eria bere nequean icusi, eta animatu, eta ondo iltzen laguntzeco ematen diozcan erreglac, eta ill arterаño eguin bear duen gucia. Ala zuc Cristava, zure fedea vici erazo beardezu, eta erreverencia andiaz Sacerdotearen itzac, Jangoicoarenac bezala, artu.

Jaunaren Ministroac badaquite ondo, oficio, edo eguiteco au, esan al baño aundiago dala ta Jaincoaren adisquide gucien celoa mereci, eta ezcatzen duela: ta guc ez icusiarren, Ainguerunac, porfian bezala, oficio ori animen

favore ordu artan eguiten dutela.

Fedeco gauza da, heriotzaco, edo atzeneco passoan animaren betico suertea dagoala. Goyan cerua, bean infernua, eta eria bien erdian dagoela. Atzeneco pauso ori ondo ematen badu betico dichosoa glorian: gaizqui ematen badu, betico desdichatua infernuan. Vici arteco pausoac oquer, edo gaizqui emanarren, Jaincoaren graciaz, eta penitenciaz zucendu, eta erremedia ditezque; baña azqueneco pauso arc, gaizqui ematen bada, erremediorie eztu, ceren atzera biurtzeric eztuen.

Badaquite ondo, Sacramentuetan, eta animen joya estimatuetan, Jesu Cristoren Odol preciosoa beren escuetan dacartela. Honra, eta cargu gucia Jaincozcoa, eta berequin carga andi, eta pisua duena, animen contu ona gucien Jauna, eta Juezari emateco: " *Rationem pro » animabus vestris reddituri.* Hebr. 13 » Badaquite, beren celoaren saria artzeco, Jaunac gucientzat neurri justu bat duela, ta aren ardiai, edo animai Cristoren icenean eguiten eta ematen dien neurri artan bertan Jesus Artzai onac berai neurritu, eta emango diela.

» *Eadem quippe mensura, quæ mensi fueritis;*
» *remetietur vobis. Lucæ. 6.*"

## §. VIATICO SANTUA ARTU EZQUERO,
*Eriac eguin bear duana.*

Baldin gaitzac lecu ematen badizu, ascori bezala, azqueneco Sacramentuac, edo Viatico, eta Uncioa artu, eta arrazoi andia da Jaunac ematen dizun dembora preciatu ura, berari graciac ematen, eta ezcatzen, zuc aprovechatzea. Ori eguin diteque urrengo afecto, ta consideracioaquin: eta osasuncan comulgatzen dan Cristavac Egercicio santu au orobat irabaci andiaz eguin dezaque.

### VIATICOA ARTU EZQUERO AFECTOAC.

Ongui etorria cerala, nere Jauna eta Jaungoico maitea: ongui etorria cerala, nere Jesus viotzecoa: eta zurequin datocen Aingueruac milla ongui etorri, ta milla esquer, on, andi, fin gabe, nere ondoan, eta icenean orain, eta beti ematen ordu oncan dagozquitzula. Amen.

Baña, Jauna, ¿au cerda? Zu zatoz nigana? ¿Zu, eta nigana? Ay! Zu nor cera? Eta ni nor naiz?

Zu Aita Eternoaren Seme bacar gueiz maitea cera: Zu cerueiaco Erreguea, eta mundu guciaren Jabea cera: Zu lurra edertasunez, Cerua arguitasunez, Ainguern, ta San-

tuac betico gloriaz betetzen dituzuna cera: eta zure Magestadearen aurrean Ainguera, eta Serafin guciac arrituta bezala daude icaraz. ¿Cer dezu, bada, nerequin cer ecusi?

¿Ni ez naiz lurreco auts pusca bat, ta loi itsusi laster lurrac jan bear navena? ¿Ta gorputzean baño animan are itsusiago nere pecatuacgatic? ¿Ni eznaiz pecatari galdu bat? ¿Ni ez naiz zuzaz azturic, eta ofenditzen, eragabeco, nere gogoen ondoren vici gucia igaro dedana? ¿Ni munduco pecatariric andiena ez naiz? Ala da eguia: bai.

¿Nola bada, au onela izanic, Zu ni icustera, honratzera eta erregalatzera zatoz nere echera, eta nere viotzera?

¡O Ondasun paregabea! ¿Zure Justiciaren aserrea, eta nere gulpac mereci zuten castigua azquenic onetan paratzen da? ¿Onen laster, onen erraz nere ofensa guztiaz zure misericordia aztutzen da? ¿Eta zure Ontasun au nic neregan icusi, eta noren contra aimbeste pecatu eguin ditudan, eta nere viotza erdibi, edo milla pusca eguingo ezta?

O nere Jesus guztizco ona! O'zure amore, eta nere ofensai dagoquien eguiazco, eta amoriozco damu bat nore luquean! Zure amorioagatic guciaz damudet. Zuc daquizun, eta nayen dezun bezala, niri ondoen dagoquidan damu, eta propositu amorezco bat arren indazu.

Zu nigan icusi, eta damuz, eta pocez nere viotz au urtu bedi: damuz, zure Ontasuna ofendituagatic; eta pocez, gaur niri Zuc eguin didazun mesede onegatic.

¡O Jaun andia! Nere beguiac iturri bi eguizquidatzu, negarrez viotza deseguiteco; ceren Zu ofenditu zaitudan.

O nere Salvadore, eta Aita gozoa! Zu nigatic cerutic etorri, eta oguei eta amar urtean, aimbeste nequeren azpian ill arteraño nere billa ibilli ciñan: eta zure odola: eta vicia nigatic eman baño leen, amore guciaren Sacramentu onetan, nic Zu artzeco, eta Zuc ni zurequin bat eguiteco gueldituu ciñan. ¡O zure amorearen indarra!

¿O cerequin Jauna, edo nola onembeste amore, eta favore pagatuco dizut? O zure vorondate, eta gustoa eguiten eracutsi, eta lagunzadazu, orduan zorionecoa izango naiz.

O Jauna, ni ona zure escuetan: ona prest, zure vorondatea beti eguiteco. Zurea naiz bertatic, eta zurea beti izan bear det ta izan nai det. Nizaz, naizuna eguizu. Mundu onetatic, oraiñ eraman nai banazu: zurea naiz, eta contento naiz, izan bedi, eta eguin bedi nigan beti zure vorondate neretzat onen dana.

Baldin pena eta nequeen artean onela, edo bestela iduqui nai banazu, zure vorondatea, eguin bedi, ez nerea. Oyean egon, edo osasunaz

ibilli, neretzat guztia bat da: zure gustoa bada, zure escuetan obeto daucat guztia, eta or uzten dizut. Nere vicia, eta naizan, eta dedan gucia, nere hume, eta familia, edo echecoac, zure contura ar itzatzu.

O Jauna, eta ceiñ ona, eta ceiñ gozoa ceran! Zu bacarric nere animaren descansua cera. O nere ondasun, eta consuelo bacarra: nere paquea, eta nere gloria: Zurequin, eta zuri beguira beti egon, eta atseden nai det.

Ay Jauna! Zu artu, eta zure Ondasun eta Edertasun paregabea icusi, eta lurreco gauza ichusiac gogoan jo, edo nazcatzen naute. Zure gustoa bada, albait lenen emendic zugana eraman nazazu. Baña gucian, eta gauza gucien gañean, Jauna, zure vorondatea eguin bedi.

### BESTE CONSIDERACIO, ETA AFECTOAC.

O Jaun guciz misericordiosoa! Ez nequien nic, eta ondo ezagutu ezdet orain bezala, pecatari galdu beren viotzeco damuaz zugana biurtzen diranentzat, ceiñ amorosoa ceran. ¡O norc munduco pecatari itsu, eta gogortu guciai deadarrez adieraci liezaquean, zugana viotzetic biurtzen diranac ceiñ amore andiaz artzen dituzun! Ta ceiñ dicha andia dan, onela zure gracia, eta amorioan, zure adisqui-

de eguiñic egotea !

¡O nere Jainco maitea, pecatari, Zu billatzen zaituztenentzat ceiñ beraa, eta gozoa ceran! Ay ¡Eta dembora batean orain bezala Zu ezagutu bacindut, Zu ofenditzetic cein urruti egongo nintzan! Baña lecu ematen didazun ezquero, nere igaroco utseguite eragabeac erremediatzeco, nere viotza zure amorez, damuzco, eta penazco ichaso bat eguin bedi.

¡O nere Jabe maitea! Eta seculan ofenditu ezbacindut! ¡O beti Zu amatzen bici izandu banintz! ¡O beti Zure adisquide egon banintz.

¡Eta ni izanic aiñ itsu leguegabea zuretzat, Zuc aimbeste amorio eracutsi didazu! ¿Niri onembeste nai izateco, eta ni onela billatzeco, cer gauza on nigan icusi cenduen? ¡Ay Jauna! Ecerez, batere ez, nere esquer gaizto, eta pecatuac baicic. Argatic gucia zure Ontasun fin gabe eta niganaco zure amore paregabeac eraguin dizu.

O Jaun aundia Criatura guciac alabatu, eta bedeincatu zaitzatela beti, eta betico! Onetaraco ceruari, eta lurrari, eguzqui, illargui, eta izar guciai, eta beste zure escuetaco gauza, ta obra guciai nere viotzera deitzen diet: diranac zu alabatzera, ta amatzera convidatzen ditut: zure Corteco Ainguera, eta Santu beti orretan daudenac: eta gucien gañean Amandre Virgiña Maria zure Ama maite, gu-

ciac baño maiteago dezun, eta zaituena.

Zuc bada, zuc criatura guztien Erreguiña: zuc nere eguiteco, eta eguin bear andi au zure contura arrezazu. Zuc iñorc ere baño obeto, eta zure Semeari ondoen dagoquion bezala, eta zuc bacarric daquizun eta artan, enigatic cumpliezazu: Bera nigana etortzean eguin didan miserecordia eta favoreric andienonezaz betico esquerrac nere partez, eta iceneàn emayozcatzu: eta bidez, bidezco pobre bionentzat escazayozu. Eternidade guztiaren bideraco bear ditudan gracia, eta indarrac Comunio santu onetan eman ditzaizquidala: guero beti zurequin batean Bera icusi, gozatu, amatu eta alabatzeco Ceruco glorian. Amen.

## § OLEACIOA ARTU EZQUERO

*Consideracioac.*

Eri asco illtzen daudeñac, eta erremedio gabe, orregatic ere chit beregan egon oi dira: eta arrazoi da, oyec dembora ori chit ondo estimatu, eta aprovechatzea. Ala Oleacioco Sacramentua artu, eta Sacerdoteac, edo iracurten daquien batec, ezperen eriac bere buruari esan diozaque modu onetan:

» ¡O cein dichosoa ceran, Cristava ordu onetan! Cembat ichaso zabal orietan; cembat leorreco bazter orietan egunero illtzen dira,

Sacramentuac artzeco dicha au gabe. Zu, Sacramentu guciac arturic, Jaincoaren Ministroac Cristau eta adisquide onac dituzula, eta Jaunari zugatic escatzen diotela, onen prest zaude.

Onelaco dicha cerequin pagatzen da, ¡ O cembat zure Jaunari zor diozun ! ondo ezagun da, bai, asco nai dizula, eta zure anima asco estimatzen duela. Onelaco señaleac icusi ezquero, contentu egon bear. Erraz bada cere burua borondate guciaz, eta osoro Jaungoicoari bere besoetan utzico diozu, aren vorondatea beti eguiteco.

Jesu-Cristo gure Jaunari beguiratu, eta erraz gaitzaren nequeac pacienciaz, eta beraren icenean eraman ditzaquetzu. Berdin Jaincoac bialtzen duena ala, edo onela eraman bear. Obe degu beraz Jaunaren icenean, eta amorez, orain neque pusca bat igaro, eta aren vorondatea eguin, eta Ceruco gloria betico segurata. Bere pecatuac pensatu ezquero, nori gogoratuco zayo, edo nore esan dezaque neque onen chiqui, eta laburrac, nola gaitzean daramazquien, andiac, edo gueyegui dirala. Ori pentsatzea da gucia galtzea. Jaunari nai ezdaquiola.

Ea bada, animagaitean, eta fede viciaz gora viotza alcha dezagun. Beguira oudo Cristava, pena, dolore, edo gaitza deitzen diogun au gucia, nondic datorquigun, eta neque

eta gaitz gueiac gozatzeco, consideracio au sobra izango da.

Enfermedadeco naigabe, eta pena guciac Aita amoroso, eta Adisquideric maiteenaren escu, eta vorondatetic datoz. Gueyeguic nai digu eta guc mereci baño gueyago: eta beraren graciaz eramango ecin degunic iñoiz ere bialduco eztigu.

Jesus onaren vicitzaco gose, egarri, neque, icerdi, pena, tormentu, eta eriotzari beguira diozagun: eta ori gucia zugatic ecin amore, ta poz andiaz aren viotzac, Aitaren vorondatea eguiteagatic eraman zuen, ta errazqui batetic lotsatu, eta bestetic alaitu guera, gure nequeac pocic eramatera.

Onen ondoren, eta vide onetatic, justu, eta Santuac, neque, pena, persecusio, eta martirioaquin igaro ciran: eta Ceruraco eztago beste bideric, zuc oraiñ daramazuna baicic.

Itsu itsuan, bada, eta chit gogotic zure Aita onen besoetan, bere amarenetan aur chiqui bat becela seguru jarri zaite, eta viotzetic esayozu: Nere Jaungoico, ta Aita maitea, eguin bedi nigan zure vorondatea: zure naya, eta nerea beti bat izangoda. Obeto daquizu, eta nai dezu Zuc: baldin trabaju edo neque gueyago eman nai badirazu paciencia gueyago arren indazu: orrela gucian zure vorondate gozoa daguidan, orain, eta eternidade gucian. Amen.

Consideracio suave, eta equiazco oyequin, edo guisa onetan Sacerdoteac, edo an dagoen batec iracurri, edo esanaz eria gozacaitz egonagatic, animatu eta consolatu bearda, ta gueldica Jaunaren bendicioaquin bera gozatuco da; eta escura etorrico da.

Baña osasuna dezun artean gauza oyec ondo iracurri, eta obeto pisatzea bertatic, ordu artaraco, eta meritu andiagoraco, guretzat obeda, nere deseoa ori bera da.

## §. ONDO ILTZEN LAGUNTZECO

*Azquenean eguin bear dana.*

Eternidadeco biaje onetan eriari obeto laguntzeco, gauza bi cer esan, eta cer eguin oraindic gueratzen dirade. Bata Sacerdoteac Eleizaren icenean eguin bear duena; eta bestea eriarequin daudenac, edo ari laguntzen diotenac.

Eta lenena, trance artan, eta ceruco bidean animac ondo zucentzea, bere ordeco Ministro celosoai Jaincoac ceiñ ondo pagatzen dien, eta onetan faltatzen dutenac nola castigatzen dituen, Jesuita biren ejemploac obeto adierazoco digute.

Aita Lonerec contatzendu, Edmundo Augerio, bere demboran Franciaco Erregueren Confesore, eta animen celo andico Jesuita estimatuac, eriotzaco orduan cegoela: eta anima

chit eder, eta chit asco bere alde bietatíc aguertu citzayozcala: eta Ceruco milla erregalo, eta berri onen artean, Cerutar eder oriec Edmundori esan cioten: Gu guera, zure Dotriña, eta conseju santuaquin Ceruco bidean sartu guinduzunac. Jaincoac bialtzen gaitu, eta poz andiaz gatoz zure anima orain gloriara eramatera. Orduan Jaincoac Jesuita oni esan cion, Anima oriez gañera, Eleiza Santura beste berrogueí milla hereje biurtu, edo convertitu cituela: eta berri gozo oyequin cerura joanzan. Tom. 3. pag. in 116.

Gure Jacobo Hautinoc dio, gure Sacerdote bat ill izan zala, eta beste Jesuita virtute andico bati Jaincoac bialdu, eta gauza, edo berri on ascoren artean ezan ciola: Purgatoriotic libratu, edo irtenzala; baña animac salvatzeco, bearzan celo vicia, vicitzan ceren iduqui etzuen, Jaincoac orren penan aguindu ciola erriz erri munduco Provincietan, animai ondo ilzen laguntzen, eta Ainguerucn oficio an eguiten Ibilli cedilla: eta bere consejn on ascorequin ori eguin zuela. Ah! Eta Jaincoaren pisuan nola gauzac pisatzen diran! Ah ceiñ necesaria an irutendan! Jaincoaren arpeguia dembora artan gucian ez icuztea. Jesuita onentzat cer tormentu gogorra izangozan.

Jaunaren ordeco Ministro Cerucoac: zuequin det: beguira ondo, Ainguerucn oficio au Jur-

rean nola eguiten dezuten. Animeen celo ori baldin camostu, eta oztu bada, egemplo oyequin, eta Jaincoaren castiguaren bildur, eta sariaren esperanzarequin berotu, eta zorroztu bedi. Jesu-Cristoren egemploa icusi, eta gure animen salvacioagatic cer eguin, cer eman, eta cer eramanzuen. ¿Nor animatuco ezta animaegatic, eta bacoitza bereagatic, edoceiñ gauza viciro eguitera, icerdiac ematera, eta nequeac eramatera? Guero uste degun gloriari beguiratu, eta gure neque gucia cer da? Eguiaz ecer ez.

Orain bada, Sacerdote Jauna, Jaincoaren Espirituaz gobernatzendala ordu artaraco egoquien diran consideracio, ta Afecto labur asco eta era ascotara emen arquituco ditu, bere demboran ondoren datocenac eriari berac esan, eta moduric onenean eraguin diozcan.

Ainguerūen oficio au artzen dutenac badaquite ondo guciac batean, eta ez deadarca, eta ez presaca edo itotzen bezala, esan, edo eraguin bear ezdirala, ezpada paciencia, eta prudencia andiaz. Eria estuan dagoenean burua argala egotenda: eta ala soseguz, eta gueldicho pausaquin, eta aldisca, eriari afecto orietan egoteco lecu ematen zayola: noicean beiñ cerbait esan, eta beregan edo bere viotzean ori esaten, paquean utzi bear zayo.

Eleiza Santaren Oracio eder batetic asico-

naiz, eta Sacerdoteac Santo Cristoa escuetan artu, eta eriari eracutsi, eta Eleizac dion bezala adoraerazo bear dio.

## §. ELEIZA SANTAREN DEVOCIOZCO *Oracio, eta Jesusen Pasioco Articulo, eta Pausoac dituena.*

Santo Cristoa adoratuaz esatendu: « Adoratzen zaitugu, Cristo, eta bedeincatzen zaitugu; ceren zure gurutze Santuaz mundua erredimitu cenduan.

« *Oracioa*. Jaungoico misericordioso, mundua erredimitzeagatic, jayo, eta circuncidatu nai izan cenduana, Juduen artean erreprobatua, Judas traidorearen laztan falsoaz entregatua, socaquin lotua, gaitz gabeco vildotsa bezala eriotzara eramana, Anas, Caifas, Pilatos, eta Herodesen aurrean gaizquiro lotsa andiaz aguertua, testigu falsoaz acusatua, azotez, chistuz, ta ofrentaz betea, arantzaz coroatua, masallecoz desonratua, cañaberaz eritua, arpeguia tapatua, soñeco gabe utzia, iltzeaz gurutzean josia, eta gora jasoa, lapur biren artean ifiñia, beatzun, eta vinagrea artuerasoa, eta lanzaz eritua. Zuc, Jauna, zure pena santu oyec gatic, ceñac ni pecataria gogora dacartzidan, eta zure gurutze santu, eta eriotza gatic, libra nazu (edo N. eri au libra ezazu) infernuco pe-

netatic, eta lapar on, zurequin gurutzean cegoena, eramanzuen lecura, eraman ezazu. Amen.

## ONEN GAÑEAN CONSIDERACIOA.

»O nere cristava, zure penetan eguiazco consueloa arguitu nai badezu, Jaun amoroso oni ondo beguira zayozu. Zure medicu cerucoa ta erremedio bacarra au dezu: esan ditugun onen pauso eta pena guciac sinistu, eta adora itzatzu, ta zure anima bere erregaloz betecodu.

» Medicu onen amorioa ondo pisa ezazu, eta zure animaco, miñac eta gaitzac sendatzeco, beguira cer penac, eta nola erremedioric samiñenac berac artu cituen.

» Beguira nola zure amorioac Gurutzean josiric odolezco negarraz, eta viotzeco deadarraz Aitari zure barcacioa escatzen tormentuz alde gucietatic beteric iltzan.

» Beguira nola bere besoac zabalic dauzcan, pecatariac artzeco, eta baldin zu viotzeco damuz beregana biurtzen bacera, zuri amoriozco laztan gozoa emateco. Beguira nola burua macurturic zuri deyez dagoquizun.

» Beguira nola bere bular, eta viotz sagradua idiquiric dauzcan, eriotzaren bidur, eta etzayen tentacioetatic, zu beregana igues eguin, eta beregan zu artu, eta seguru gordetzeco.

» Bere gorputzeco llaga, eta eridac cembat diran, beste aimbeste dei, eta deadar ematen dizquitzu, onen amoreac diola: Atoz anima nerea, atoz nigana. Zurea da, culpa; baña nic artu-det pena. Baldin zure pecatuen cargac, eriotzaren ansiaz batean estutzen, eta azpian artzen bazaituzte, atoz nigana nic gucien barcacioa eman, eta arindu, eta consolataco zaitut. Ezdet ez igues egningo zure aldetic; baña ¿nola igues eguin nezaque, baldin zuganaco amorioac oñac eta escuac onela lotu, eta josi badizquit?

Consideracio oyec gueyenac San Agustin batenac dira.

O animaren zori oneco dicha! ¿Eta bere Jabearen onelaco itz gozoac aditu ezquero, nor animatuco ezta? ¿Eta onelaco Jauna ofendituaz nori damutuco etzayo? Ea bada nerequin batean viotzetic ezayozu.

## CONTRICIOZCO AFECTOAC.

Ai nere Aita guztiz ona! ¿Cer eranzungo diot nic zure amoriozco deiari? ¿ Aitortzen det, Jauna, eta lotsa andiaz zure Semearen icenic mereci ezdedala, bada zure beguietan, eta nere Ceruco Aitaren contra pecatu eguindet. Ay! Damu det milla bider, zu ala, eta aimbeste bider ofendituaz.

» O damuz eta zure amorez nere viotza ber-

tan puscatzen, eta erdibi eguiten balitz!

» Ez arren, Jauna, nere culpai beguiratu: infernua oriec gatic mereci nuela ezagutzendet. Beguira bai, zure Ontasun andiari, nizaz misericordia iduquitzeco.

» Zure begui garbiac, nere pecatu loyetatic quen itzatzu, eta zure amore eta piedadeari beguiratu, eta diranac barca zaizquidatzu.

Ea Jauna: zure misericordiazco beguiaquin nere anima galduari beguira zayozu, eta orrela salvatuco naiz. Nere Salvadorea cera: izan zaite ordu onetan; eta zure icen santu, gurutze, ta pasioagatic, orain etzayen tentacioetatic libratu, eta salva nazazu. Nere Jesus ona: zure viotzean betico sartu, eta zure gracian gorde nazazu.

» Ceruco Aita maitea: Zu gucientzat cera guciz ona. Ni naiz gucien bearrena: zure ontasuna non eracutsi, ona nigan, nun dezun. Artzai ona eguiaz Zu cera, ona bada ni zure ardi eguiaz galdua. Ardi galdua zure sorbaldan artu cenduen, edo nere pecatuac zure gañean. Galduric ibilli naiz ni: arren, Jauna, zure artalde, eta zure eche santura, biurtu eta betico zure gracian artu nazazu.

» Nerea da culpa, Jesus ona aimbeste ofenditu zaitut, Ay zori gaiztoco culpac! Baña ¿ cer eguin aldezaquet? Guztiaz det damu, Jauna: direnac zure oñetan confesatzen ditut, zu-

re amoresco zu vician erre, eta desenguin ditean.

» Zugan daucat nere esperanza gucia: eta nere pecatuen damuaz zugan esperatzen duana, iñoiz ere galdu, edo confunditu izan eztana. Pecatari andi ascori barcatu diezu: misericordia ori bera nerequin eguingo dezu.

» Ay Jauna · zugana onen berandu etorriaz damu det! Baña alare badaquit eguiazco damu- eta propposituaz zugana biurtzen, edo datocen pecatariac, zure piedadearen atea beti zabalic arquitzen dutela. Ona bada, zugana non natorren, edo zure ontazunac non nacarren.

» Zure amorioac caburic eztu: fin gabea da, zure misericordia: niri barcatzean, zure ontazuna, icustenda. Argatic ni condenatzea nai eztezu, ezpada ni salvatzea: eta Zu icusteco, Zu amatzeco, Zu gozatzeco zure gloriara ni betico eramatea. O Jauna ala izan dedilla Amen.

## AMAVIRGIÑARI AFECTOAC.

Virgiña Maria, gure Jaungoico Salvadore, eta Amore ederraren Ama maitea! Zu cera pecatari tristeen misericordiazco Ama.

» Gurutzearen oñean zure Semeari beguira dolores beteric ceundenean, berac pecatarien Ama eguin cinduen. O cer consuelo, eta cer dicha paregabea gurea, Zu becelaco Ama ceruan idu-

quitzea ! Zu cera guretzat ceruco Atea, eta zugaña datorrenarentzat beti idiquia.

» Eguia da nere anima pecatuaz loituric icusi, eta lotsaz, eta damuz beteric zure beguietara allegatzen naiz. Baña zugan Erreguiña andi, eta Amandreric onena, nere uste osoa, eta segurua daucat. Zure mantupera, zure amparora nator nere erremedioaren billa.

» Ama guciz maitea, arren zure begui eder oriec biurtu itzatzu nigana. Nic ezdet ori mereci: ala da eguia: baña Jesus zure Semearen »Biotseco amorioac ori mereci, eta ori escatzen dizut: eta aren pasio, eta eriotzagatic. Zuc zure balio andiaz, arequin nere artean bitarteco gozagarri izan bear dezu.

» Ordu onetan iñoiz ere baño zure bearrago naiz. Zure Biotz beraa, eta begui piadozoaz beguira zadazu. Misericordiazco Ama izan zaite neretzat. Beguira niri: etsai gaistoen artean estu nabill: oien tentacioetatic libra nazazu. Zu nere favore cerala, zu nerequin zaitudala, aien bildur ez naiz.

» Ecer nic mereci ezdet; baña zure Biotzeco Semearen odol preciosoagatic, ez arren Andrea, ni orain desamparatu. Seculan aditu ezta, eta ez adituco, eguiaz zugana biurtu eta zuzaz baliatu danic, amparo gabe gueldituu dala: ona bada ni guztiz bearra, viotz gueiti zugana nator, zugan nere esperanza osoa daucadala,

» Eriotza, eta eternidade guciarequin burruca eta pelean icusten nazu: lastima zaite nizaz' Ama guciz beran, eta gosoa. Nere bildur, eta neque samin guciac bigundu eta gozatuco dira, Zu nere favore bacera.

» Ea bada pecatarien Ama, anima triste onegatic zure Seme bedeincatuari erregu zaiozu. Zuc au eguiten badezu seguru nago, pocic, eta amore onez zu bezalaco Ama, bera bezalaco Semeac enzungo duela. Itz eguiozu bada, nere Bitarteco bacarra, eta esaizu, nibezalaco pecatariac salvatzera etorri zala mundura.

» Zu cera gure arguia: argui eguidazu. Zu cera gure paquea: animaco paquea indazu. Zu cera gure consolatzallea: nere anima consola ezazu. Zu cera mundu galduaren erremedioa arquitu, eta aguertucenduena; nere anima erremediaezazu. Zu cera zure Seme maitean gure Salvadorea eman ciñiguna: izan bedi bada nere Salvadorea: eta ni zugatic salvatuco naiz.

» Badaquit, Ezperanza nerea, zure Biotzeco erruqui amorosoa nigan daño zabaldu dana. Zuc, zure Semeac bezala iñor condenatzea, nai ez dezu; baicic guciac Salvatzea. Zure bular gosoac zure Semeari zuc eracutzi ezquero, aren acerre juztua bereala gozatucoda.

» Nere damua da zure Semea, eta zu aimbeste ofenditu, eta azerratuaz. Baña guciaz

eta gucien barcacio oso osoa alcanza zadazu.

» Zu cera andre gucien artean bedeincatua, Jaunaren graciaz, eta doaiez betea: zu graciazco, eta misericordiazco Ama: ona ni desdichaz beteric galdua, ampara nazazu orañ, eta beti Jaincoa amatzeco.

## SAN JOSE GLORIOSOARI AFECTOAC.

O nere Santu gozo, agonian, edo iltzeco trantzean daudenen bitarteco seguru, eta poderosoa, eta lagunic onena! Zu bear zaitut ordu onetan nere buruco aldean. Esqueco pobre, eta eriotzaco ordu eztu onetan, zuri deiez dagoen anima triste oni beguira zaiozu, eta ampara ezazu.

» O nere Josef Santua, eta Santu gucien artean chites doatzua, eta gucien gañean zorionecoa! Zu bacarric cera paregabecoa, eta guizonen artean bigarrenic ez dezuna. Zu gure Jaungoico gucien artzecodun dana, gure esacran, zure zordun dezuna.

» Jaincoari gucioc zor diogu, eta zuri gucioc zor dizugu: eta baita Jaincoac berac ere. Bada zure neque, eta izerdiaquin, necazariac bezala, Jaincoaren Semeari, eta Amari jaten eman, eta vicitzen lagundu ciñien lagun zadazu niri orain, nere anima betico vici dedin.

» O Josef, vicitzan, eta eriotzan Santu gu-

cien dichosoena! Bada Jesus, eta bere amaren aldean vici izan ciñan. Zu Jesus onaren, eta zu Virgiña Ama zure esposa eguiazcoaren gozoric, eta atzeguiñic andiena ciñan lurrean, eta cera Ceruan. ¡O cer consueloa dedan onetan!

» Ama Semeaz campora, eta Semeac Amaren urrena, Zu zaituzte Ceruan, eta lurrean criatura gucien gañean gueiena estimatzen, eta amatzen zaituztena. ¡ O cer esperanza dancadan nic onetan!

» Zu eriotzan, vicitzan bezala, bezteric ez bezala, dichosoena izan ciñan: bada Jesus buruco aldetic eta Maria Virgiña zure oiaren oñetatic, cinduela zure espiritu doaiez, graciaz eta amorioz betea Jesus onari bere escuetan eman ciñion eta onec bere viotzean artu cinduen. O cer vicitza, ó cer eriotza¡ O cer gloria vicia!

» Dicha eta favore, esan al baño andiago oiec gatic, erregutzen dizut, nere Aitaric onena, eta gozoena, nere eriotzan nerequin arqui zaiteala. Zure Esposa santari, ta aren Semeari zure izerdiac eracutsi zayetzu: eta Amac bere Seme maiteari bere bular gozoac eracutsi, eta vioc nere pecatuen barcacioa segura ezazute.

» Jesus, Maria, eta Jesef, orain, eta beti nere biotzean izan diteala. Jesus, Maria, eta Jesef, San Juaquin, eta Santa Ana, nic en-

tregatzen dizutet nere anima, eta dedan gucia, eta ni naizana. Jesus, Maria, eta Josef, Juaquin eta Ana, nere anima salvatzeco atozte gucioc nigana. Amen.

## SAN MIGUEL, ETA BESTE AINGUERUAI
*Afectoac.*

Ceruco Espiritu eder gucien aguintari San Miguel gloriosoa, eta Eleiza Santaren, eta animen Defensore poderosoa, atoz laster, ¿ non cera? Zure Ainguera, eta lagun santuaquin atoz nere aldera: orañche da dembora, len Jaincoaren gloriagatic bezala, orain beraren amorioagatic, zuc, eta zure lagun santuac Lucifer, eta aren deabru gucien contra, eta nere favorore peleatzeco.

» Jaiqui zaitez, bada San Miguel animen adisquide, eta bitarteco andia, eta ots eguizu len Ceruan bezala, orain emen: *Nor Jaincoa bezelacoric*: eta orrequin deabru guciac igues emendic aienatu, eta ondatuco dira.

» Anima fiel guciac, Jaincoac zuri aguinduric, zure contura gaude, zuc gorde, eta amparatzeco: Zure escuetatic Jaunaren aurrean, eta aren argui eder artan presentatu eta aguertu bear degu: Ona bada, nere anima zure deiez, zure zai, zure beguira non dagoen.

» Ama Virgiña, San Josef, eta Ainguerua-

quin batean arren alcanza zadazu Jauna gandic fede vici, esperanza firme, eta amorio santu irazaqui bat, nere pecatu gucien eguiazco damu, eta propositua, Jaincoaren ontasunagatic, nere anima garbiro zure ezcuetan emateco.

» San Gabriel aingueruen artean Jaincoaren indar miragarria, gure erremedio eta salvacioraco Ama Virgiñari berri onac ecarri ciniozcana. Ona anima triste bat zure berri onen bearra daucana. Zure deiez nago: lagun zadazu, eta tentacio gucietatic libratzeco indarra indazu.

» Ceruco medicu San Rafael mundu onetan bidesco dabiltzanen Lagun fiela: arren lagun zadazu jornada, eta trance onetan ceruco bidea utseguin ezdezadan. Itsua nago: ceruco arguia indazu, eriotza on batequin viaje au ondo eguin, eta arpeguiz arpegui Jaincoa icustera zurequin igo nadin.

» Ainguera Guardaco, Jaincoac señalatu eta nere zai lagun on leiela bezala pauso gucietan ibilli cerana: atoz zu ere, atoz, eta pausoric estuen onetan zaitu, eta gorde nazazu, nere animaz contu ona emateco.

» Zu, eta beste Ainguerua Jaincoaren vorondatea gure oneraco beti eguiten ari cerate. Ay! Nic ere ori beti eguin banu! Zure avisoac artu banitu, eta zuri beti beguiratu ba-

hizu nere ondoan gau eta egun ! Ay ! Ta nolacoac, eta cein bestelacoac nere pausoac, itzac eta obrac izango ciraden.

» Baña ezagutzen, eta aitortzen det, eta guciaz damu det. Zuc beste aingueru, eta Santuaqnin, lagundu bear didazu Jaunaren misericordia arquitzeco.

» Patriarca, eta Profeta Santu Jaincoaren arguiaz, eta virtutez janciac ! Apostolo santu, Jesusen Disciputo, eta munduaren Maisuac ! Martiri zuen tormentuaz ceruco Coroa irabaci cendutenac ! Doctore jaquinsu, Eleizaren argui andiac ! Comfesore humill, eta penitenteac ! Virgiña Ceruco Erreguearen Esposa garbiac ! ¡ Cerutar guciac batean, atozte nigana, ordu onetan ni amparatzera. Jaunari escazaiozute nere anima beraren graciaz, eta zuen bitarteco s, zuen lagun Ceruan betico izan dedin. Amen.

» Santa Barbara, Jesus maitearen Esposa garbi, Virgiña, eta Martiri miragarri, eriotzaco orduan daudenen consolatzallea. Ona, Eleizacoac dicha andiaz arturic, [zure amparoaren beguira non nagoen, Lagunzadazu, nere bitarteco gozoa orduonetan Jaincoaren amore santuan eriotza on bat eguiteco.

¶ Emen bacoitzaren devocioco Santuai escatzen zaye.

## FEDE, ESPERANZA, AMORIO,

### *Eta Contrisiozco Actoac.*

Esango diran urrengo acto, edo afectoac. Sacerdoteac eriari eraguingo diozca oraiñ, edo ondoen deritzanean. Baña bearrenac, eta meritoric andienecoac beti dira Fede, Esperanza, eta Caridadeco, edo Contrisiozcoac, guisa onetan.

» O Misericordiazco Aita, eta consuelo guztiaren Jaincoa! Nere animaco beguiac argui itzatzu, eriotzaco illuntasunaren lo pisuan erori, edo sartu ez nadin. Zure Fedearen argui golpe andi bat indazu, Jauna, zure gauza andiescutatuenac edo fedeco Misterioac, bear bezala, eta zuc naizun moduan, jaquin, adoratu, eta sinisteco.

» Zure graciaz bada sinistendet, nere viotzeco fede oso guciaz Trinidadeco zure Ministerio miragarriena: Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: iru Persona distintoac. Esan naidet: Persona bata ezdala bestea, ez bada irurac bana. Aita dala Aita, Semea, dala Semea, eta Espiritu Santua dala Espiritu Santua: eta irurac eguiazco Jaungoico bacar bat dirala. Jaungoico bacar onetan, eta iru Persona oietan sinistendet: au confesatzen, adoratzen ta viotz guztitic gauza guciac baño gueiago amatzendet.

» Sinistendet, Jaincoaren Semea, gu salva-

tzea gatic guizon eguin zala: Maria Virgiña gandic jaiozala: padecitu eta Gurutzean ill, enterratu, limbora jechi, ta irugarren egunean erresusitatu, eta Ceruetara igo zala: andic viciac eta illac juzgatzera etorrico dala.

» Sinistendet, pecatuen barcacioraco Eleizan Sacramentuac dirala: Fede bat, Eleiza bat, eta Bateo bat dala: beste gauza eleiza Santac eracusten eta aguintzen dizquidan guciaquin: eta onetatic campora salvacioric ez dala.

» Sinistendet Aita Jaintoagan: sinistendet Seme Jaincoagan: sinistendet Espiritu Santu Jaincoagan.

» Esperatzendet Aita Jaincoagan: esperatzendet Seme Jaincoagan: esperatzendet Espiritu Santu Jaincoagan.

» Amatzendet aita Jaincoa: amatzendet Seme Jaincoa: amatzendet Espiritu Santu Jaincoa: eta damudet nere viotz guztitic bera ofenditua bera dana gati.

» O nere Jaungoico guztiz Santua, seculan ofenditu ezbacindut! ¡ O zori gaiztoco pecatuac eta pecatuen bideac!

» ¡ OJaun guztiz justua! Ez arren nerequin contuetan sartu: bada zure beguietan justuric iñor izango ezta.

» ¡ Ay Jauna Ichasoco ondar, edo areac baño pecatu gueyago ditut! ¿ baña alere zure Misericordiaren aldean cer dira? Ecer ez. Zure mi-

sericordia gueiago, eta neurri, eta contu gabea da, O cer esperanza gueizcoa!

» ¡O Jaun guciz ona! Ez niri, eta nere onari beguiratu, ezpada zure honrari. Nic, orain baño len, galtzea eta condenatzea merecí nuen; baña zure ontasun ta amorioac ni salvatzea nai du. Magdalena eta beste pecatariac artu cinduen: Ea bada, ona beste bat non datorren: zure amorioan artu nazazu.

» ¡O zure amorioan betico irazaquia banengo! Beti zu amatzeco, eta zure amore santuan beti erre, eta urtutzeco. Eternidadeco, bide, eta azqueneco pauso onetan gorde, ta salva nazazu Jauna, zu beti alabatzeco. Amen.

## ESPIRITU SANTUARI ESCARI, ETA AFECTO

*Eleiza Ama Santac eguiten diozcanac.*

O Espiritu animen consaladore, amorezco Jaincoa! Atoz nere nequean ni consolatzera: Atoz nere viotza zure gracia gozoaz betetzera. Atoz zure amorezco sua nigan betico irazaquitzera.

» Atoz pobreen Aita: atoz doaien emallea: atoz viotzen arguia. Zure arguigabe nigan gauza garbiric ezta.

» Nere loiac garbi itzatzu nere leortasuna ere ezazu: nere eritazuna senda ezazu. Nere gogortasuna bera ezazu: nere oztazuna bero ezazu;

nere oquerrac zucen itzatzu.

» Zu cera consoladore gucis maitea: animaren etorcari gozoa, ta atseguin eguia Cerucoa. Zu cera nequeen descansua, estutasunen atzedena, negarretan consueloa.

» Zu cera Aitaren escuico Beatza; atoz, eta zuretzat señala nazazu. Zu cera amoriozco sua; atoz, eta irazaqui nazazu. Zu cera doai gucien iturria; atoz, eta zure ur vici orrezaz bera nazazu.

» Zu cera zazpi Doaien Jabea: atoz nigana, eta oriezaz nere anima janci ezazu. Zu cera Aitac Semeari esqueñiricaco consolatzallea, eta Semea guri emana: atoz zure arguiarequin Aita ta Semeac, eta zu, Espiritu Jaungoico bacarra, emen ondo ezagutu, eta zure frutu, eta sari gozoaquin, Ceruco glorian obeto, ta betico icusi, adoratu, eta gozatu zaitzadan. Amen.

## AITA ETERNOARI JESUCRITO BERE *Semearen meritoen ofrenda gucizco baliosoa.*

Nere Jaungoico gucizjuztua! Zure beguien aurrean, nigan izan alditequean errespetoric humillen, eta confianzaric andienaz aguertzen naiz. Zure atzeguin, honra, eta gloriaric andieneco Ofrenda bat, bere pareric ezduena, nere culpa eta pecatu andi gucien descontuaraco, zuri presentatzera: eta oiec zure jus-

ticia acerratu duten bezala, aserre ori guztiro quentzeco, Seme Santu onen vicitza, pacio eta eriotzaren sacrificio onequin zure Biotz, eta arpeguia seguru beratu eta gozatuco da.

» Beguira bada ondo, Jauna: eta ondo baicic ecin beguiratuco diozu. Nere pecatuen paguan ematen dizut zure Semeac nere amorez, Virgiña bere amaren sabelean gure araguiz Janci eta bederatzi illabetean, an egon, ta Belengo Portalean aiñ pobre jaiotzean, eta abereen artean egotean zuri, Aita Eternoa, iduqui cizun obediencia.

» Andic zortzi egunera: bere Circuncisioan, nere salvacioagatic isuri zuen odola, eta eguin, cituen negar preciosoac: bere aurtasunean, eta bere vician eraman cituen otz, eta bero; gose eta egarri; neque, eta icerdi guciac.

» Beguira Jauna, zure honraraco, eguin cituen oracio barau, eta penitencia guciac, egemplo, Sermoi, eta milagro guciac. Beguira, nola azqueneco afarian, esan al baño humildade andiagoaz, Apostoloai oñac garbitu, eta nola guc alcar sufritu, eta amatu bear guenduen eracutsi cigun. Beguira, zure gustoa eguiteagatic, afari artan Sacramentu Santua amorio pare gabeaz, gau eta egun gurequin egoteco, eguin zuen.

» Beguira, Jauna, cer laztan, ta negar gozoaquin, Pasio, eta eriotzaraco bere Ama

maitea gandic dezpeditu zan: Gesemaniaco baratzan nola iru bider Oracioa eguin zuen: eta Judas saltzalle gaistoaren laztan falsoa, cer pacienciaz artu zuen, ta etsaiac nola lotu zuten.

» Beguira Jauna, munduan izan dan gauric illunen, eta desdichaduen artan eraman, eta igaro cituen neque, desprecio, lotsa, eta tratu, pensatu al baño gogorragoac: eta orduan, eta urrengo goicean Anas, Caifas, Pilatos eta Herodes echeetan, eta bide, edo caleetan eraman cituenac: egun artaco testimonio, afrenta, burla, golpe, bofetada, azote, coroa, eta burlazco Erreguearen soñecoa.

» Beguira, Jauna, Pilatosen eriotzaco, sentencia gogorra artu zueneco aren Biotceco pena, eta paciencia: bere Gurutzea artu, eta tormentuz, eta lotsaz beteric aren Calvarioco Mendi santurañoco, neque precioso, eta pauso dolorezco trizteac: nere pecatuen carga pisuac Gurutze pean artu, eta auzpez, baratzan bezala odola ceriola nigatic zuri erregutzen iduquizuen amorioa.

» Beguira, Atia Eternoa, zure Seme Cristoren arpegui ederra, orduan nere culpaquin itsusitua, eta nola iltze gagorraz Gurutzean josi, eta gora jaso zuten: eta an quedarrezco vinagre, eta beazunezco eraria eman cioten: nola bere etzaiac gatic, eta nigatic, oracio eguin, eta negarrez, eta deadarrez barcacioa es-

catu cizun.

» Beguira nola, bere Ama maitea guri Amatzat utci, burua macurtu, eta bere espiritua zure escuetan, Seme onac bezala, zuri bere Aitari bezala eman cituen.

» Ea, Jauna, contuetara gatozen. Andiac, asco, eta chit itsusi beltzac dira nere culpac; baña are andiago da zure Semearen ofrenda, eta sacrificio au: onetan dago nere ezperanza, eta seguridade guztia. Badaquizu, zure Seme maitea bitarteco, eta fiadore irten zala: orra bada Jauna nere pecatuen zorra: eta orra nere pecatuen pagu osoa, ugaria, eta ecin gueiago alacoa. Arrezazu zure Semearen Sacrificio au, eta quito, Jauna.

» Aita Eterno, Jaun justoa. Badaquit, zure itzaren jabe cerana. Bada, ecin faltatuco duen zure itz erreal Jaincozcoa da zure Semearen icenean ezcatzen dizuguna, emango diguzula. Onec berac ezcatzen dizu, niri barcatzeco; eta nic onen icenean escatzen dizut ori bera, eta ematen dizut zure Semeagan pagu gucia, berac, niri, eta neretzat utzi didana.

» Beraren Gurutze Santua da nere zorren pagua, deabruen contraco arma segurua Gurutze Santua da neretzat Ceruco atearen Guiltza maisua. Onequin, eta onetan ill naidet; onetan zure Semeac bezala, onequin batean bere espiritua eman nai dizut betico,

*Jaungoicoa icusteco deseoac.*

O nere Jaungoico, nere Criadore, eta Salvadorea! Jesus zure Seme onaren esperanza onequin, zure vorondatea danean, ill naidet. O nere dichazco zu icusteco egun, eta ordua noiz etorrico da!

» Egarriac itotzen dan batec iturri fresco gozo bat nola deseatzenduen, ala Jauna, nere animac Zu betico ur viciaren iturri gosoena. Leorrac erdiratzen duen Lurra bezala zure egarriac dago nere anima. O Jauna, cerueo zure ur vici ori indazu, bein betico ase, eta, beste gausen egarria quentzeco.

» O edertasun autziñacoa, eta beticoa! ¿Zure arpegui ederra noiz icusico det? Eracutsdazu beñ, eta betico naiz dichosoa.

» Ceruco Erregue eta Jauna! ¿ Zure jaurcegui eder, andi zabal orretara, noiz igoco naiz? ¿Zure Jerusalengo Eche, edo Erri eder orretan Eternidade guztiraco noiz sartuco naiz?

» ¿O nere gorputzeco, eta eriotzaco cartzela onetatic noiz libratuco otenaiz, nere anima libre eta ariñ zugana igotzeco?

» ¡O Gorputz onetatic libratzea, eta azcatzea, eta nere Jesus onarequin betico egotea, nola, eta cembat deseatzen dedan!

» ¡Ay erbestetua nago lurrean, Ceruraco eguiña naizala! ¿ Destierro au noiz acabatuco

da? Erri bestean canta aleguereric ecin cantatuco det. O cer pena ! ¿Ceruco Aingueruen canta berri gozo ura noiz adituco det?

» Dichoso, eta bienaventuraduac dira, Jauna, zurequin, zure Echean, eta zure aldean vici diranac. Secula gucietan alabatuco zaituzte. Zu icusi artean nere anima triste dago. ¿Zure Templo santuan noiz sartuco naiz ni? ¡O An betico Zu adoratuco zaitut, eta zure Icen santua confesatu, eta alabatuco det!

» Zu icusi, eta ez goseric, ez egarriric, ez doloreric, ez negarric gueiago izango dá. Milla urte zure aurrean, atzo igaro zan eguna bezala dira. O ceiñ pocic emengo nequeac eraman ditezquean, zu icusteagatic! O edertasun gucien eguille ederrena! Uso baten, edo Aingueruen egoac nere lituquean, egaca bezala zugana bereala igotzeco, eta Zugan betico atsedeteco.

» Atoz eriotza, atoz ordu onean: atoz nere cate oiec ascatzera, nere centro, edo toquira ni noan. O nere Jainco, Ispillu ederra! ¡Zure arpeguico arguian ceiñ ganza eder miragarriac icasi bearra nagoen! Zu, ceran bezala icustea, da Santuen gloria vicia. ¿Cere nauca bada ni limbo onetan? Ya ordua badator: betor ordu onean. O cer poza ondo illtcea.

» Ya illtcen naiz, Jauna: ecin ilzeguin det mateldir, eta lotu da nere mingaña: nere be-

guietaco arguia, eta viotza ere illundu da. Jauna, zure escuetan nere anima encomendatcen dizut. A Dios, nere aide, adisquide, eta ezagunac. A Dios mundua. Gucioc Jaincoari nigatic erregutu oraiñ lurrean, guero alcar icusi dezagun betico Ceruan. Amen.

## ILTZECO ZORIAN DAGOENAREN
*Afecto viciac.*

Nere Jaungoico guciz ona, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua! Zugan sinisten det: Zugan esperatcen det: ta Zu gauza gucien gañean amatcen zaitut.

» Aita Eternoa, zure Semearen Pasio, Gurutce, eta Eriotzagatic eriotza on bat indazu. Zure misericordiaren bear naiz: orri deitcen diot ordu onetan, eta viotz guztitic.

» Nere argaltasunari zure piedadeaz beguira zaiozu trance onetan. Ay Jauna: damu det Zu ofendituaz, ceren Zu aiñ Ona ceran.

» Nere Jesus maitea! Nora biurtu, zugana baicic, ezdet, zure odol preciosoaz baliatu nai det, salvatzeco. Misericordia nizaz.

» Damu det, Jauna nere culpa gueiaz; ceren zure ofensac diran: damu det milla bider ceren gauza gucien gañean zuri naidizudan.

» ¿O Nere viotz au zure amorio garbiaz iracequia balego.?

» Infernuco etsaiac galdu nai naute ordu o-netan. Ezarren, Jauna, ni utzi: libra nazazu: nic zurea izan bear det. Zu amatzen zaitut.

» Pecataria izan naiz: eguia da, Jauna. Baña nere gaitz guciac baño zure ontasun, eta misericordia andiagoa da.

» Virgiña Maria Jaincoaren Ama, Guru-tzearen oñean zure Semearequin igaro cin-duen pena, eta doloreac gatic, lagun zadazu, eta zure mantupean betico artu nazazu.

» Jesus: Jesus milla bider, Jesus, Maria, ta Josef orañ, ta beti nere viotzean, eta animan izan diteala.

» Jesus nere Salvadorea: izan zaite nere Jesus, eta Salva nazazu.

» San Josef bedeincatu gozoa: ¿Non cera, nere Aita maitea? Atoz niri laguntzera, eta zure beso bedeincatuetan nere anima artzera.

» Ainguera Santuac, zuen beguira nago, atozte laster ni libratzera!

» Nere animaren Eguillea: zure escuetan nere espiritua ematen dizut.

» Ama Virgiña Maria: Ama graciazcoa, Ama misericordiazcoa, etsai gaiztoetatic libra nazazu, eta ordu onetan zugana artu nazazu

» Aita Eternoa: ez nere desdichai begui-ratu ezpada zure Semearen arpegui, eta Bio-tzari. Argatic misericordia nizaz.

» Damu det, Jauna, zu ofenditnaz, zu cerana-

gatic. Misericordia.

» Jesus: Jezus beti nere viotzean: Jesusegan nere viotz, eta amorio gucia.

» Jesus, Maria, eta Josef, Joaquin eta Ana, atoste gucioc nigana.

» Jesus orain, ta beti balia daquidala. Jesus izan bedi nere esperanza, nere consuelo, nere amore, eta nere gloria vicia. ori nere Jesus, zure anima au: ori Jesus, zure espiritu au, espiritu guciaquin zu beti alabatzeco, eta zure mesericordiac beti cantatzeco. Amen.

» Nere Jesus ona zure Viotza idiqui zenduen ni or artzeco or sartu naidet seculaco, or artu nazazu betico.

» Sinisten, eta esperatzen det zugan: eta zugan nere amorioa betico. Amen.

» Onelaco afecto vici laburren artean, allegniñaz, ill bear da, Jaunaren Ministroac badaquite, beñ batzuec, guero besteac, banaca eta soseguz eraguin beardirala; iltzen dagoenari, viotzean oriec eguiteco lecu, eta atzedena emanaz eta ondo aditzen ezpadu azquenean, ez belarrietatic, baicic buru gañetic Sacerdoteac eriari itzeguin beardio, obeto adierasotzeco. Eta oneraño da iltzen laguntzeco Ejercicioa.

*De Visitatione Infirmorum.*

Nere iracurlea: Lecu onetan ondo icusten da len aditzera eman dedan Eleiza Santaren zure animarequico conto andia. Zu gaizo zaudeneco, eta are gueiago gaitz andi, edo eriotzaco peligroan sartzen ceraneco; Jaincoac ecmen bere Ministroai amazazpi Erregla chit ederrac, eta zure favore andicoac ematen diste: Nola zu icustatu, edo vicitatu, nola zuri lagundu, eta zure neque gucietan animatu bear zaituzten: cer consejuac eman, cer Santuen egemploac contatu, eta vicita orietan cer arrazoiaz baliatu bearduten, eta salvacioco bidean nola seguratu bear zaituzten.

Jaungoicoa alabatzeco gauza da, eta orregatic esaten dizut. Eta nola Eleiza Santac infernuaren contra dituen arma poderosoac Sacerdote Jaunen escuetan, ta aoan Jangoicoac dauzcan, eta baterere Evanjelio Santuac oiec Ritual sagraduan dauden Oracioaquin nic emen eman nai ditu. Modu azcotan libruetan arquitzen dira. Baña espiritu Santuac bere Eleizari ematen dituenac gucientzat onenac dira: eta ala fede vici eta devocio andiaz, erremedio edo conjuro Santu oiec zuc aditu bear dituzu.

Eleiza Santaren iru Oracio, Evangelioaquin len, edo guero gaisoari esateco.

*OREMUS.*

Deus, cui proprium est misereri semper, & parcere; suscipe deprecationem nostram, ut nos, & hunc famulum tuum, quos delictorum catena constringit miseratio tuæ pietatis clementer absolvat.

Deus infirmitatis humanæ singulare præsidium: auxiliaris tui super infirmum famulum tuum ostende virtutem, ut ope misericordiæ adjutus Ecclesiæ tuæ Sanctæ incolumnis repræsentari mereatur.

Concede hunc famulum tuum quæsumus Dñe Deus perpetua mentis, & corporis sanitate gaudere, & gloriosa Beatæ Mariæ semper Virginis intercessione á presenti liberari tristitia, & æterna perfrui lætitia. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

## EVANGELIO SANTUAC.

*Gaiso edo, eriai errezatzeco modua.*

℣. Dominus vobiscum.
℟. Et cum spiritu tuo.

✝ Sequentia Sancti Evanjelii cecumdum Matheum. ℟. Gloria tibi Dñe.

In illo tempore: cum introisset Jesus Capharnaun, accessit ad eum Centurio, rogans eum & dicens; Domine, puer meus iacet in

domo paraliticus, et malé torquetur. Et ait illi Jesus: Ego veniam, & curabo eum. Et respondens Centurio ait: Domine non sum dignus, ut intres sub tectum meum, sed tantum dic verbo, & sanabitur puer meus. Nam, & ego homo sum sub potestate constitutus, habens sub me milites, & dico huic: vade, & vadit; & alii, veni, & venit; & seruo meo: Fac hoc & facit. Audiens autem Jesus miratus est, & sequentibus se dixit: Amen dico vobis; non inueni tantam fidemin Israél.

Et dixit Jesus Centurioni: Vade, & sicut credidisti, fiat tibi: & sanatus est puer in illa hora. ℟. Laus tibi Christe.

*OREMUS.*

Omnipotens sempiterne Deus, salus æterna credentium: exaudi nos pro infirmo famulo tuo N. tro quo misericordiæ tuæ imploramus auxilium: ut reddita sibi sanitate, gratiarum tibi in Ecclesia tua referat acciones. Per Christum Dominum nostrum. ℟. Amen.

℣. Dominus vobiscum.

℟. Et cum spiritu tuo.

✝ Sequentia Sancti Evangelii Secumdum Marcum. ℟. Gloria tibi Dñe.

In illo tempore: Recumbentibus undecim Disciplis, apparuit illis Jesus, & exprobravit incredulitatem eorum, & duritiam cordis, quia iis, qui viderant eum resurrexise, non crediderunt. Et dixit eis: Euntes in modum universum, prædicate Evangelium omni creaturæ. Qui crediderit, & baptizatus fuerit, salvus erit: qui verò non crediderit, condemnabitur. Signa autem eos, qui crediderint, hæc sequentur. In nòmine meo dæmonia eiicient: Linguis loquentur novis: serpentes tollent: & si mortiferum quid biberint, non eis nocebit: super ægros manus imponent, & benè habebunt. ℟. Laus tibi Christe.

*OREMUS.*

Virtutum cælestium Deus, qui ab humanis corporibus omnen languorem, & omnem infirmitatem præcepti tui potestate depellis: adesto propitius huic famulo tuo N. ut fugatis infirmitatibus, & viribus receptis, Nomen sanctum tuum, instaurata propinus sanitate, benedicat. Per Christum Dominum nostrum. ℟. Amen.

℣. Dominus vobiscum.
℟. Et cum spiritu tuo.

✠ Sequentia Sancti Evangelii secundum Lucam. ℟. Gloria tibi Dñe.

In illo tempore: surgens Jesus de Synagoga introivit in Domun Simonis. Socrus autem Simonis tenebatur magis febribus: & rogaverunt illun pro ea Et stans super illan, imperavit febri. Et dimisit illan, & continuó surgens ministrabat illis. Cum autem sol occidisset, omnes qui habebant infirmos varits languoribus, ducebant illos ad eum. At ille singulis manus imponens, curabat eos.

℟. Laus tibi Christe

## *OREMUS.*

Domine Sancte Pater omnipotens æterne Deus, qui fragilitaten humanæ conditionis, infusa virtutis tuæ dignatione confirmas, ut salutaribus remediis pietatis tuæ, corpora nostra, & mentez vegetentur: super hunc famulum tuum propitius intende; ut omni necesitate corporeæ infirmitatis exclusa, gratia in eo pristinæ sanitatis perfecte reparetur. Per Christum Dominun nostrum. ℟. Amen.

℣. Dominus vobiscum.

℟. Et cum spiritu tuo.

✠ Initium S. Evang. secundun Joannem. Gloria tibi Domine. c. 1.

In principio erat Verbum, & Verbum erat apud Deum & Deus erat Verbum. Hoc erat in principio apud deum. Omnia per ipsum facta sunt: & sine ipso factum est nihil quod factum est: in ipso vita erat, & vita erat lux hominum: & lux intenebris lucet, & tenebræ eam non comprehenderunt. Fuit homo missus á Deo, cui nomen erat Joanes. Hic venit intestimonium ut testimonium perhiberet de lumine, ut omnes crederent per illum. Non erat ille lux, sed ut testimonium perhiberet de lumine. Erat lux vera, quæ illuminat omnem hominem venientem in hunc mundum. In mundo erat, & mundus per ipsum factus est, & mundus eum non cognovit. In propria venit, & sui eun non receperunt. Quot quot autem receperunt eum, dedit eis potestatem filios Dei fieri, his qui credunt in nomine eius: Qui non ex sanguinibus, neque ex voluntate carnis, neque ex voluntate viri, sed ex Deo nati sunt. Et Varbum Caro Factum est, & habitavit in nobis: & vidimus gloriam ejus, gloriam quasi Unigeniti á Patre plenum gratiæ & viritatis.

℟. Laus tibi Christe.

*OREMUS.*

Respice, Domine famulum tuum in infirmitate sui corporis laboratem, & animan refore, quam creasti; ut castigationibus emendatus, continuo se sentiat tua medicina salvatum. Per Cristum Dominum nostrum. ℟. Amen.

Super ægros manus inponent, & be né habebunt. Jesus Mariæ filius mundi salus & Dominus, meritis, & intercesione Santorum Apostolorum suorum Petri, & Pauli & omnium Sanctorum sit tibi clemens, & propitius. Amen.

Benedictio Dei omnipotentis Patris ✝, & Filii, & Spiritus Sancti, descendat super te, & maneat semper. Amen.

*Aspergat eum aqua bedediecta.*

LAUS DEO.

# ARQUIVIDE, EDO INDICEA.

INSTITUCION SANCHO EL SABIO · Obra Social · Caja de Ahorros de Vitoria

Ondo iltzea eerdan. Pag. 1.
Testamentua eguitea. 7.
Azqueneco, edo iltzeco Confesioa. 15.
Azqueneco, edo iltzeco Comunioa edo Viaticoa. 18.
Oleacioa edo Azquen Uncioa. 23.
Ritus conferendi Eucharistiam. 29.
Ordo ministrandi S. Uncionem. 34.
Indulgentia pro articulo mortis. 41.
Comendacio animæ. 44.
Animaren recomendacioa. 53.
Viaticoa artu, eta eriac eguin bear duena. 62.
Ordo artaraco Consideracio, eta Afectoac ibid.
Oleacio artu ezquero consideracioac. 67.
Ondo iltzen laguntzeco Egercicioac. 70.
Eleiza Santuaren Oracio, eta Contriciozco Afectoac. 73.
Ama Virgiñari, San Joseri, S. Miguel, da Santuai Escariac. 77.
Fede, Esperanza, eta Amoriozco Actoac. 85.
Espiritu Santuari Escari, eta Afectoac. 87.
Aita Eternoari bere Semearen ofrenda. 88.
Jaincoa icusteco deseo Santuac. 92.
Iltzeco soria Afecto vici laburrac. 94.
Evangelio Santuac bere oracioaquin. 98.